

## **ERANSKINA: HEZKUNTZA EUSKADIN 2019-21**

### **A.- EUSKAL HEZKUNTZA COVID-AREN AURREAN**

### **B.- HEZKUNTZA HITZARMENA: EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN PROPOSAMENAK**

### **C.- HEZKUNTZA EUSKADIN 2017-2019 TXOSTENAREN PROPOSAMENEN JARRAIPENA**

#### **A.- EUSKAL HEZKUNTZA COVID-AREN AURREAN**

##### **1.- Hezkuntza Sailaren jarduna**

2020ko martxoaren 9an, ikastetxeetan salbuespenezko egoera bati hasiera eman zitzaion, eta, azkenean, horrek eragina izan zuen gizarte osoan. SARS-CoV-2 birusaren hedapenaren ondorioz, astelehenetik, hilak 9, ostegunera, Osasun Sailean hartutako erabakien arabera, EAeko ikastetxe guztiak itxiko ziren, 15 egunez.

Martxoaren 9tik 2020-2021 ikasturtearen amaierara bitarteko aldia maila guztietan eragin zuen ziurgabetasun eta tentsioagatik gogoratuko da; izan ere, eguneroko bizitza eten egin zen. Eremu askotan presentziala izateari utzi zion lanbide-jarduera beste batzuetan biderkatu zen, bereziki osasun-arloan eta elikadura- eta hornidura-zerbitzu deiturikoetan, kudeaketa-zerbitzuetan eta zerbitzu komunitarioetan eta beste batzuetan.

Hasiera-hasieratik, Hezkuntza Sailak ikastetxeei eskatu zien familiekin komunikazio-bideak irekita edukitzeko, bi helburu hauekin:

- Hezkuntza Saila Osasunetik zuzendutakoen arabera hartutako erabakiak ezagutzea.
- Etxeetan ikasteko ohiturei eusteko gomendioa sustatzea, ikasleei oporraldia ez zelako ideia helaraziz.

Martxoaren 13an, ostirala, Sailaren webgunean gune berri bat sortu zela jakinarazi zitzaion ikastetxeei, koronabirusak ikastetxeetan duen eraginari buruzko informazioa jasotzeko, eta Hezkuntzako sailburuordearen lehen jarraibideak sartu ziren, honako puntu hauekin:

- Irakasleen ohiko ordutegia eta ikasleekiko harremana mantentzea.
- Haur-hezkuntzako irakasleei eta hezkuntza bereziko langileei (hezkuntza-laguntzako espezialistek eta fisioterapeutak) materiala prestatzea eta moldatzea eskatu zitzaion.
- Aholkulariek, orientatzaileek, pedagogia terapeutikoko langileek eta entzumeneko eta hizkuntzako langileek irakasleei laguntzea, hlbz zituzten ikasleentzat beharrezkoak ziren materialak egokitzeko.
- Berritzeguneetatik eta Ikuskaritzatik ikastetxeei laguntzea
- Ikaskuntza-ingurune birtualak (Google edo Microsoft) ematea ikastetxeei.
- Ikastetxeko bilerak minimizatzekeo beharra, pertsona-kopurua murriztuz eta espazio zabalak eta aireztatuak erabiliz.
- Prestakuntza-saioak bertan behera uztea ikastetxe barruan eta kanpoan.

- Etxean ikasteko ohiko ordutegia mantentzeko gomendioa eman zen baliabide digitalak zituzten ikasle eta irakasleen arteko harremana sustatuz, bestela, material inprimatua jaso behar zen ikastetxean eta harremana, telefonoz
- Banakako tutoretzak sortzeko aukera.
- Irteerak bertan behera uztea eta Osasun Sailaren gomendioa Erasmus bidaiak saihesteko.

Egun horretan bertan, martxoaren 13an, beste jarraibide batzuk bidali ziren Ikuskaritzara, zonako Berritzeguneetara eta Berritzegune Nagusira, IRALera, Ingurugelara, IBTra, Hizkuntza girotze-zentroetara eta Sukarrietako ingurumen-hezkuntzako zentrorara.

Zehazki, Ikuskaritzari jakinarazi zitzaion ikastetxeei jakinarazi behar ziela hartzen ziren erabaki guztiak Osasun Sailaren erabakien babespean egongo zirela. Gainera, ikastetxeek hezkuntzarako eskubidea bermatzeko egiten zuten jardueraren jarraipena egiteko eskatu zitzaion. Ondoriozko informazioa Ikuskaritzako lurralde-buruari helarazi behar zitzaion, hiru lurraldeen jarduerak koordinatzeko.

Berritzeguneei hezkuntza-maila guztietako ikasleentzako material didaktikoa prestatzeko eskatu zitzaion. Ikastetxeek ikasleekin eta familiekin erabil ditzaketen plataformei edo ingurune digitalei buruzko aholkularitza eta prestakuntza lehenetsi behar zuten, bai eta agindutako hezkuntza-zereginei edo tutoretza-prozesuetan ikasleei jarraipena egiteko estrategiei buruzkoa ere.

Irale eta Ingurugelari dagokienez, online eskainitako ikastaroak soilik mantendu ziren.

Bai IBTan, bai Sukarrietako ingurumen-hezkuntzako zentroa eta Hizkuntza girotze-zentroetan, bertan behera geratu zen aurrez aurreko jarduera, eta materiala berrikustea eta eguneratzea gomendatu zen. IBTn, gainera, Berritzeguneko aholkularitzekin eta irakasleekin telematikoki koordinatzea proposatu zen, bai eta familiekin komunikatzea ere, haien inplikazioa errazteko.

Era berean, Lanbide Heziketako sailburuordearen eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen jarraibideak bidali ziren, bertaratutako eskola-jarduera etenda dagoen bitartean irakasleak beren lanpostura joateko araubideari buruzkoak.

Ikastetxe publikoei eta Haurreskolak partzuergokoei zuzendutako idazkian adierazten zen irakasleek baliabide digital nahikoak bazituzten eta ikastetxeko Zuzendaritzak egokitzat jotzen bazuen, telelanaren sistemaren bidez egin zezakeela bere lana, ikastetxera joan gabe. Bestela, ikastetxetik egingo zen, eta Zuzendaritzak ordutegia eta bertaratze-egutegia ezarriko zituen.

Martxoaren 16an, jarraibide horiek berak eman zitzaizkien lan-kontratadun langileei. Garbiketako eta jantokiko langileak ikastetxeetako Zuzendaritzek xedatzen zutenaren mende geratzen ziren.

Era berean, aurreikusitako ebaluazio diagnostikoko probak bertan behera utzi zirela eta material didaktiko digitalak sortzeko eta trukatzeko plataforma berri bat (Amaraura) erabilgarri zegoela jakinarazi zen.

Eskola-jantokien erabiltzaile ziren ikasleentzat aurreikusitako laguntzei dagokienez, hezkuntza-jarduera presentzialaren etenaldiari dagozkion kuotak mantentzen ziren eta ez ziren ordaindu behar.

Lantokietako praktikak kendu ziren, eta titulua lortzeko beharrezko orduak berreskuratzea proposatu zen.

2020ko EPerako aurrez ezarritako epeak eta Ikuskaritzako EPEn bigarren azterketa atzeratu ziren.

Data hauek ere atzeratu ziren:

- Hautagaien zerrendarako birbaremazioa.
- Lekualdatze-lehiaketarako
- Plaza berezien lehiaketak
- Hezkuntza-itunak eskatzea
- 2019ko gizarte-funtsaren eta prestakuntza pertsonalaren epeak
- Zerbitzu-eginkizunak baimentzea
- Osasun-arrazoiengatik edo hautapenezko karguagatik orduak murriztea.

Azken batean, eten egin zen informazio publikoa eskuratzeko administrazio-prozedura edo epeak irekitzea ekarri zuten beste batzuk.

Martxoaren 20an, Sailak Konferentzia Sektorialean berretsi zuen Unibertsitatera sarbiderako froga mantentzeko beharra, eta uztailan froba egiteko alde agertu zen. Martxoaren 25ean jakinarazi ziren unibertsitatera sartzeko ohiko eta ezohiko frobaren datak.

Martxoaren 26an, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen instrukzioak jantokiko beken zenbatekoaren ordainketa arautu zuen, aurrez aurreko eskola-jardueraren etenaldiari zegokiona.

Sailburuordetza horrek berak, martxoaren 27an, hilaren 13ko jarraibideen osagarri ziren jarraibide batzuk bidali zituen, eta zenbait lehentasun ezarri zituen aldi ez-presentziala luzatzearen aurrean esku hartzeko:

- Lehen Hezkuntzako 6. mailan, etapa berri batean sartzeak zekarren aldaketagatik.
- DBHko 4. mailan, titulua eskuratuta derrigorrezko etaparen amaiera-maila zelako.
- Batxilergoko 2. maila, titulua lortzeagatik eta unibertsitatean sartzeagatik.

Halaber, hurrengo ikasturtearen hasierari begira, DBHko eta Batxilergoko 1. mailarako lan trinkoa eta espezifikoa egin behar zela adierazi zen, konfinamenduaren denborak izan dezakeen eragina arintzeko.

Ikasturte bakoitzean eskatzen ziren gutxienekoak bermatu behar zirela adierazi zen, hurrengorako oinarrizkoa zena kontuan hartuta. Halaber, familiak jarraipen-lanetan inplikatzearen inguruko kezka adierazi zen. Horretarako, ikasteko ohiturari eusteko jarraibideak zituzten orientabideak lantzea proposatu zen, bai eta etxean oinarrizko lan jakin batzuk egiteko moduari buruzkoak ere, hala nola informazioa bilatzea, laburpenak eta eskemak egitea, ahal izanez gero IKTak erabiltzea eta abar.

Sailean garatutako baliabide digitalen lana azpimarratzen zen:

Irakurgunea, Bizikasigunea, Steamgunea eta Ikasgunea plataforma, familiekin informazio zehatza eta eguneratua mantentzeko.

Baliabide digitalik ez zuten eta, batez ere, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara bitartean eskolatutako ikasleentzat, ezin izan zitzaizen materiala familiei eman. Hori dela eta, astelehenetik ostiralera, ETB 3ko programa bat eskaini zen goizero "Bitartean, etxetik ikasten", curriculumari

buruzko gai, jarduera eta edukiekin euskarazko lotura mantentzeko, irakasle boluntarioen parte-hartzeari esker.

Mugarik gabeko luzapenaren une hartan, behin eta berriz aipatzen zen ikastetxeko zuzendaritzak bultzatu behar zuen koordinazioa, lana zentzuzkoa eta eraginkorra izan zedin. Era berean, beharrezkoa zen erreferentziazko aholkulariekiko eta ikuskariarekiko lotura estutzea, hartutako neurrien jarraipena bermatzeko komunikazio-bideak sustatuz.

Bigarren hezkuntzako ikastetxeei jakinarazi zitzaien ez zela pilotajerik egingo PISA probetarako.

Martxoaren 31n, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak jakinarazi zuen 2020-2021 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuaren epeak bertan behera geratu zirela. Egun horretan bertan, zirkular bat helarazi zitzaien HPI kalifikazio altua edo oso altua zuten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei, beren etxean baliabide informatikorik ez bazuten, ikastetxeetako ordenagailu eramangarriak maileguan hartzeko prozedura jakinarazteko.

Apirilaren 3an, Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariak familiei jakinarazi zien udan atzerriko hizkuntzei buruzko ikastaroak egiteko egonaldiak eten zituela.

Egun horretan bertan jakinarazi zen, halaber, eten egin zirela Lanbide Heziketa-zikloetara sartzeko eta Teknikariaren eta Goi-Mailako Teknikariaren titulua lortzeko probak.

Apirilaren 6an, "Bitartean etxetik ikasten" telebista-programari buruzko informazioa helarazi zitzaien zentroetako zuzendaritzari, hedapen handiko baliabide didaktiko gisa, eta COVID-19 Orientabideak familientzat dokumentua argitaratu zen: familiaren osasun fisiko eta emozionalaren zaintzari, egoera berriaren aurreko planei, adingabeekin harremanetan jartzeko beharri, informazio toxikoa neutralizatzeko gomendioari, familia-bizikidetzaren zaintzari eta etxetik ikasteko laguntzari buruzko gomendioekin.

Apirilaren 8an jakinarazi zen 2020ko LEParen datak atzeratu zirela.

Apirilaren 20an, Lanbide Heziketako ikastetxeen eskura hainbat material didaktiko jarri ziren webgunean, LHko titulu askori euskarria emateko. Era berean, zentro horietako sistemen administratzaileak zentro horietara sartu ahal izateko jarraibideak eman ziren.

Apirilaren 22an, Hezkuntza-plana bidali zen 2019-2020 ikasturtearen amaierarako eta 2020-2021 ikasturtearen hasierarako, Hezkuntza Sailburuordetzaren jarraibide batzuekin, honako alderdi hauek jorratuz:

- Oinarrizko eskubideen bermea.
- Hezkuntza-jarduera garatzea eta berariazko hezkuntza-laguntza behar zuten ikasleei erantzutea.
- Metodologia.
- Irakasle-taldearen koordinazioa.
- Ebaluazioa.
- Hezkuntza-indargarriak, banakako planak, curriculum-egokitzapenak eta errekoerazio-prozedurak.
- Familiekiko komunikazioa.
- Ikasturte amaierarako funtsezko erreferentziak etapa eta irakaskuntza guztietan, eta ikasturte amaierako ikasleen ebaluazioari buruzko atal espezifikoko bat, maila eta dokumentazio akademiko desberdinetarako gutxieneko erreferentzia-erreferentziak.

Apirilaren 24an, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuei jakinarazi zitzairen zuzendaritza-postuetarako deialdiko eskabideen epea bertan behera uzteko erabakia. Apirilaren 27an, ikasturtearen itxierari buruzko dokumentu bat bidali zitzairen Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Apirilaren 29an bi komunikatu eman ziren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak onartzeko prozesuari eta irakasleen eta irakasle ez zirenen birbaremazio-prozesuari berriz ekiteko.

Maiatzaren 5ean, jakinarazi zen Batxilergorako ikasleak onartzeko prozesua eta 18 urtetik gorakoentzako DBHko graduatu-titulua lortzeko proba librean prozesua berriz abian jarri zirela.

Maiatzaren 12an jakinarazi zen berriro ekin zitzaizela lekualdatze-lehiaketei, sukaldeko eta garbiketako langileen birbaremazioari eta lan-kontratadun hezkuntza-langileak esleitzeari.

Hilaren 14an jakinarazi zitzaion hezkuntza-komunitateari DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako hezkuntza-jarduera presentziala noiz berrabiaraziko zen. 15ean, ikasgeletara itzultzean norberaren eta ikastetxearen higieneari buruzko neurriak jasotzen dituen Jarduera-protokoloa bidali zitzairen ikastetxeei.

19an, Ikastetxeen eta Plangintzaren zuzendaria buru zuen Jarraipen Batzordea abian jarri zen ikastetxeetako Laguntza eta Jarraipen Batzordeek planteatutako galderei edo zalantzei erantzuteko, prebentzio-neurriei, antolamendu-neurriei eta/edo jardueren garapenari zegokienez. Une oro, Prebentzio Zerbitzuetako eta Osasun Saileko ordezkariak parte hartu zuten.

Maiatzaren 27an iragarri zen administrazio-prozedurei berriro ekingo zitzaizela.

Ekainaren 25ean bidali zitzairen ikastetxeei 2020-2021 ikasturte berrirako koronabirusaren aurkako Jarduera-protokoloa, hilabete batzuk geroago, 2021eko otsailean, egokitu zen Prebentzio-neurrien dokumentu batekin batera.

2020-2021 ikasturtearen hasieratik, birusak ikastetxeetan zuen intzidentziaren eguneroko erregistroa mantendu zen. Ikastetxe itxiak eta ikastetxe irekietako gela itxiak zenbatzen ziren, eta intzidentzia-tasa batekin laguntzen zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren urteko kontuei buruzko 2020ko Memoriak pandemiaren aldiarekin lotutako erreferentzia esplizitu batzuk jaso zituzten Hezkuntzaren esparruan. Horien artean, Informatika-planari eta Komunikazio-planari lotutakoak nabarmentzen ziren, honako hauekin:

- Material higienikoa hornitzea.
- WIFI sareak instalatzea falta zen Lehen hezkuntzako ikastetxeetan.
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sareko segurtasuna hobetzea, zerbitzarien online backupa txertatuz.
- Ikastetxeak Internetera ateratzeko bigarren esteka bat aktibatzea.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat 10.413 Windows ultra-arin eta 7.089 Chromebook ultra-arin erostea.
- 4.826 Windows eramangarri eta 2.033 Chromebook Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako, DBHko eta Batxilergoko irakasleentzat.

- 3.896 mahai gaineko ordenagailu, Lehen hezkuntzan eta Bigarren hezkuntzan zaharkituta dauden ekipoak ordezkatzeko.
- 104 monitore interaktibo Lehen hezkuntzako eta Bigarren hezkuntzako gela berrietan.
- 9 zerbitzari ikastetxeetarako.
- 103 armairu elektrifikatu Lehen eta Bigarren hezkuntzako geletarako.
- 2.088 web-kamera Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeetarako.
- 9.493 familiari gailu digitala erosteko Sare Hezkuntza beka ematea.

Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2020ko irailetik abendura bitarteko baliabide pertsonalak zabaltzeari dagokionez, egoera epidemiologikoari aurre egiteko ezohiko esleipenari dagozkion 451 irakasleren datua sartu zen. Bigarren hezkuntzari dagokionez, aldi horretan 223 irakasle berri gehitu ziren.

## **2.- Hezkuntza-komunitatea**

### **2.1.- Euskadiko Eskola Kontseilua**

Kontseiluak, Batzorde Iraunkorreko kideen ordezkariaren bitartez, bizi zen une zailari lotu nahi izan zion. Horregatik, komunikatu bat egin zuen apirilaren 2an, Hezkuntza-komunitate osoa (ikasleak eta familiak, irakasleak, zuzendaritza-taldeak eta Hezkuntza-administrazioko zerbitzuak) egiten ari zen ahalegina eskertzeko.

Berriro ere, maiatzaren amaieran, ohar bat zabaldu zuen ikasturtearen itxierari eta hurrengo ikasturtearen prestaketari buruz, ikasle gehienak ikastetxera ez joateak izan zuen eragina kontuan hartuta.

Azkenik, urriaren 28an, 2020-21 ikasturte berria hasi zenetik hilabete baino gehiago igaro ondoren, beste jakinarazpen bat igorri zen, Hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioaren garrantzia azpimarratuz, presentzialtasuna eta prebentzioa uztartu behar ziren une batean.

Ikasleek eta haien familiek, irakasleek eta zuzendaritzek eta hezkuntza-administrazioak egindako ahalegina baloratu zen.

Zuzendaritza-taldeentzako laguntza berezia eskatzen zen, administratibotik karga burokratikoa moderatuz eta ikasle guztiei behar bezalako arreta emateko baliabide egokiak emanaz, egoera luza liteke ahalegin luzeagoa eskatuz.

Hezkuntza-etapetako irakasle-talde bat bildu zuen jarduera batean (8 Araban, 10 Gipuzkoan eta 15 Bizkaian), konfinamenduan bizitako esperientzia egiaztatzeko, egoera horren ondorioz gairitu gabe zeuden erronkak baloratzeko eta horiei heltzeko proposamen zehatzak egiteko.

Berritzeguneez edo Ikuskaritzak iradoki zituzten irakasleak, beren gaitasunagatik eta irakaskuntza-konpromisoagatik.

Bestalde, Gazteriaren Behatokiak informazioa eskatu zion Kontseiluari 2021eko maiatzean, ikasleak ikasturte horren amaieran egoera nola balioesten ari ziren jakiteko. Egoera hori nolabaiteko normaltasunez igaro zen ikasgeletara joateari dagokionez.

Jarduera bat diseinatu zen, eta DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailako irakasleei helarazi zitzaion, tutoretzaren esparruan garatzeko eta ikasleek jasotako eskariaren inguruan hausnartzeko.

Lana sei ikastetxeri planteatu zitzairen, hurbiltasun- eta aniztasun-irizpideak aintzat hartuta; azkenean, bik ezin izan zuten parte hartu, eta, beraz, proposamena lau ikastetxetan garatu zen: bi publikotan eta itunpeko beste bitan, eta Bilboko Artxibo Historikoaren egoitzan egin zen lan-saio batean aurkeztu zituzten ondorioak.

## **2.2.- Zuzendaritza-taldeak:**

Berariazko atal bat merezi dute egoera txar horietan ardura berriak beren gain hartu zituzten ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek, zalantzarik gabe, beren zereginean kezka eta inplikazio-maila handitzea eragin zutenak.

Ikasleak ikastetxera joateari utzi ziotenetik, haien mende egon zen etxetik lan egiteko baimena, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari (LAPZ) langileen artean gertatzen ziren kutsatzeen gorabeheren berri ematea, ikasleekin garatzen ari zen jarduera gainbegiratzea, baliabideak mobilizatzea, ikasleekin eta/edo familiarekin harremanik ez izateagatik egoera konplexuei antzematea eta erantzutea, etab.

Apirilean, LAPZk Kontingentzia-planerako jarraibideak biltzen zituen eskuliburu bat bidali zien zentroei, konfinamenduan zehar zentroetan zeuden langileen erregistroez gain.

Sailak Hezkuntza Plana dokumentua ikastetxeei helarazi zienean 2019-2020 ikasturtearen amaierarako, itxiera antolatu behar izan zuten, ikasle gehienak etxean gera zitezkeenaren ikuspegitik, egindako lorpenen beharrezko ebaluazioarekin.

Une horretan, interes berezia izan zuen curriculuma berrikusteak eta ikasturtea gainditzeko kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak ezartzeak.

Funtsezkoa izan zen irakasle-taldea koordinatzea ebaluazio-motari buruzko erabakiak hartzeko (probak, lanak, erregistroak), eta zailtasun handienak izan zituzten ikasleentzako errefortzuak eta errekupeazio-prozedurak aurreikusteko.

LAPZk kontingentzia-planak prebentzio-neurriekin, larrialdi-neurriekin eta neurri konpontzaileekin diseinatzeko eskatu zuen, DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Heziketa-Zikloetako ikasleekin aurrez aurreko aldia berriz hasi zenean. Oso denbora gutxian, ikastetxeko zuzendaritzak sustatu zuen guneak (sarbidea eta irteerak, distantziak, aireztapena, pasabideak, kafe-guneak, edariak, janaria, igogailuak eta eskailerak, bainuen, aldagelen eta dutxen erabilera). Multzokatzeak, baliabideak (gel hidroalkoholikoa, paperezko zapiak, banatzaileak eta paperontzi itxiak, maskarak eta, hala bazegokio, eskularruak, mantalak edo buzoak, hondakinen kudeaketa). Langileak, ikasleak eta jendea sartzeko ordu-tarte bereziak, higiene-ohiturak sustatu zituzten (eskuak garbitzea, hidrogel termikoa erabiltzea), ekipamenduak eta instalazioak garbitzea, etab. Zuzendaritzaren mende egon zen, halaber, bereziki sentikorrek ziren langileak ikastetxera ez joateko eta telelana egiteko eskaera.

2020ko maiatzaren 7an, Prebentzio Zerbitzuak berak Laneko arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan COVID-19aren eraginpean egoteko arriskuaren aurrean dokumentua bidali zuen, langileen osasuna babesteko ezarri beharreko ekintzen katalogo batekin. Ikastetxeko zuzendaritzak, berriz ere, prebentzio-neurri orokorrak antolatzeko ardura izan zuen langileen osasuna babesteko ekintzen katalogoaren arabera.

Sailak, bere aldetik, neurri horien berri emanez, zuzendaritzeari proposatu ziren laguntza eta Jarraipen-batzordeak sortzea, Ikuskaritzari jakinarazteko aldi berean sortzen ziren zalantza eta gorabehera guztiak. Lakuako Jarraipen Batzorde Nagusitik erantzunak helarazten saiatu zen.

2020-2021 ikasturterako neurriak iragartzen zituen protokoloan hiru agertokiren arabera antolatzen zen ikastetxea. Berriz ere, zuzendaritzak antolatu egin behar izan zuen, eta ikastetxearen Urteko Planean islatu behar izan zituen COVIDaren aurrean jarduteko estrategiak, egindako kontingentzia-plana kontuan hartuta.

Ikasturte berriaren plangintza aurreratu zuten, ikasle ahulenen arreta lehenetsiz, alderdi emozionalei arreta berezia emateko, higie-ne- eta prebentzio-errutinak lantzeko, curriculumaren funtsezko elementuak lehenesteko, gaitasun digitala eta irakasleen prestakuntza eta eremu horretako baliabideak bultzatzeko. Ikasleak ikasgeletara itzultzeari lehentasuna emanez, funtsezkoa zen taldeen zein norbanakoen lorpenei eta premiei buruzko informazioa partekatzea.

Ikasleen artean gaixotasunaren sintomak agertuz gero jarduteko prozedurak ezarri ziren, talde egonkorren, burbuilaren eta espazioen berrantolaketaren kontzeptuak sartu ziren, eta, behar izanez gero, batzuk ikastetxetik kanpo ere izan ziren. Lanaldia aldatu zen DBHn.

Jantokia kalteberatasun bereziko ikasleentzat lehenetsi zen, eta garraiorako egokitzapenak iragarri ziren.

Unibertsitate sarbiderako frogaren antolaketari dagokionez, zuzendaritza-taldeak ere bereziki inplikatu ziren, ohiko egoitzen edukiera ez baitzen nahikoa nahitaezko distantzia-neurri eusteko. Hori zela eta, Sailak egoitzak handitu behar izan zituen eta, beraz, inplikaturako zentroen kopurua handitu behar izan zuen, eta, ondorioz, baita zuzendaritza-taldeena ere, probak antolatzen laguntzeko. Ikastetxeak erabiltzeak berekin zekarren higie-ne-babeseko eta norbera babesteko ekipamenduetako elementuak hornitzea, bai eta egindako kontingentzia-planen arabera erabili beharreko espazioak higienizatzea eta garbitzea ere. Gainera, irakasle gehiago sartu ziren epaimahaietarako eta proben egunean ikasleei laguntzeko, batez ere egoitzen inguruetan sartu, irten eta atsedendietan egon zirenean, bai eta ezarritako babes-neurrien zaintzan ere.

Ondoren, LAPZk laneko arriskuaren prebentziorako neurriak ezarri zituen EAEko ikastetxeetan, COVID 19ren eraginpean egoteko arriskuaren aurrean. Neurri horiek hiru helbururekin osatzen zituzten aurreko informazioak:

- Zentro osasungarriak eta seguruak mantentzea.
- Kasuen detekzio goiztiarra eta kudeaketa egokia ahalbidetzea.
- Ikastetxe bakoitzean kontingentzia-plan berria egiteko erraztasunak ematea.

Berriz ere, iraileko lehen egunetan, Sailak 2020-2021 ikasturtearen hasierarako jarduketan eta ikastetxeetan COVID kasuak agertzearen aurreko jarduketan Protokolo osagarria igorri zuen. Protokolo horretan, zuzendaritzaren laguntza eskatzen zen, kontaktuak ahalik eta azkarren bilatu ahal izateko, eta kontaktu posibleen informazioa helarazteko.

Bajak eta ordezkapenak kudeatu zituzten, birusaren intzidentziari buruzko datuak eman zituzten egunero. Ikasleekin eta haien familiekin protokoloak jarraitzeko beharra adierazi zieten ikastetxeko langileei, bai eta ikasturte hasieran modu berezian inplikatzeko beharra ere, zenbait hilabeteren ondoren ikasleen presentzia berreskuratzen baitzuen.



### **2.3.- Irakasleak**

Ziurgabetasuna eta segurtasunik eza bizi izan ditu, baina taldearen eta, bereziki, zuzendaritzen laguntza eta lana izan zela baloratu zuten. Erantzukizun profesionala eskatu zen ikasleei arreta emateko eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, eta, horretarako, etengabeko komunikazioa izan zen ikaslearekin eta familiekin.

Gaitasun digitalaren garapen esanguratsua gertatu zen, baina eduki akademikoa nabarmendu zen. Proposamen birtual erakargarriak egiteko eta ikasle batzuen jarraipena egiteko zailtasunei buruzko kezka azaldu ziren. Agerian geratu zen ez zegoela eskola birtualaren planteamendurik curriculumari, irakaskuntza-praktikei eta ikasle guztien jarraipenari heltzeko.

Familia eta emozio-egoera zehatzei modu berezian heldu behar izan zieten. Ikasle bakoitzaren egoera pertsonal, familiar eta akademikoak ikaskuntza-estrategia pertsonalizatuak sortzea eragin zuen, eta horiek etorkizuneko erronka gisa hartu beharko dira kontuan.

Ikasleen arteko harreman ona eta egokitze gaitasuna, ausardia eta ikasteko gogoia sumatu dituzte. Antolatze orduan autonomia hobetzeko beharraz ohartarazi dute, baita zeharkako kompetentzien garapenaz: ikasten, izan, elkarrekin bizitzen eta pentsatzen ikastea eta gaitasun digitalak duten garrantziaz ere.

Teknologia digitalaren erabilera modu kritikoa ikusi zuen, pantailen gehiegizko erabilera eta horren ondorioak saihesteko.

Zailtasunak izan zituzten bigarren etapan ikaskuntza erronken eta proiektuen bidez egituratzeko, nahiz eta beharrezkoa ikusten zen gaitasunen garapenean aurrera egiteko eta prozesuen garapenari arreta indartzeko.

Familiei dagokienez, oro har, irakasleengan konfiantza agertu zuten, eta beren seme-alaben hezkuntzarekiko jarrera ona, babesa eta konpromisoa agertu zituzten, baita zailtasunen aurrean ere. Batzuetan, baliabide digitalen, soziokulturalen edo linguistikoen faltak eragindako mugek asko mugatu zuten laguntza.

Ondorio orokor gisa osasun-krisiak hausnarketarako eta autoanalisirako aukera argia eman zuela ikusi baloratu zuten irakasleak.

### **2.4.- Irakasle ez diren langileak**

Ikastetxeko irakasle ez diren langile guztiek modu desberdinean lagundu zuten, bai konfinamendu-aldian, bai aurrez aurreko jarduerari ekin zitzaionean.

Diseinatutako protokoloak modu berezian lagundu zuten langile guztiek aplikatu eta errespetatu zituzten; izan ere, gerora sortutako egoera ezezagun batera egokitzea ere egokitu zitzaien, eta horrek lehen egiten ez zituen zereginetan inplikatzeko edo intentsitate handiagoz egitea ekarri zuen.

### **2.5.- Ikasleak**

Ustekabeko baten aurrean aurkitu ziren ikasleek egoera hori kudeatzen ikasi behar izan zuten. Ikastetxera joateko ezintasunak nabarmen aldatu zituen haren gizarte-harremanak, eta espazio birtualera mugatu ziren neurri handi batean. Beste lagun batzuekiko distantziari eta senideekiko eta, bereziki, aitona-amonekiko harremanari ere eragin zien.

Ikasleek ez zituzten era berean hauteman ondorioak, eta, beraz, ez da egokia ondorio positibo eta negatiboen sailkapena. Efektu bera modu positiboan edo negatiboan sentitu ahal izan zen, egoeraren arabera.

Jarraian, ikasleek egindako iruzkinak laburbilduko ditugu:

- Zer duten baloratzen ikasi dute.
- Dibertitzeko beste modu batzuk aurkitu dituzte, irakurketa, sukaldaritza...
- Harremanak izateko beste modu batzuk, bideo deien bidez, etab. Sare sozialek beren bizitzetan duten eraginaz gehiago jabetzen dira, eta pantailen gehiegizko erabilerarekiko kezka adierazten dute, batez ere anai-arreba gazteenen artean.
- Ahulago sentitu dira, bakarrik, eta bizitzaren mugetan eta mehatxuetan pentsarazi die.
- Askatasunik ezak eragin emozional eta psikologiko desberdina izan du pertsona bakoitzarengan, tristura eta estresa sentitzeko moduan.
- Beren burua gehiago zaintzen eta norberaren higiena baloratzen edo familiarekin denbora gehiago pasatzen ikasi dute.
- Arazoak erlatibizatzen eta presioari aurre egiten ikasi dute, enpatikoagoak izaten, pentsamendu kritikoa eta ingurumen-kontzientziario handiagoa sustatzen.
- Kirola eta eskolaz kanpoko beste jarduera batzuk faltan bota dituzte.
- Uste dute ez duela eragin negatiborik izan emaitza akademikoetan, nahiz eta ikaskuntza batzuetan ez den sakondu edo ezin izan den jarduera praktikorik egin (laborategia).
- Kosta egin da klase telematikoetan arreta eta kontzentrazioa mantentzea.
- Etxeko baliabide faltari eragin dio (wifia, etxeko guztientzako ordenagailuak).
- Egokitzeko gai izan dira. Autonomoagoak eta arduratsuagoak izaten ikasi dute, irakasleen etengabeko konpainiarik gabe antolatu behar izan baitute beren lana.
- Orientazio txikiagoa jaso dute, adibidez, Batxilergoko modalitateak aukeratzeko.
- Oro har, familien babesa izan dute, baina aipatu dute osasun-arloan gurasoak dituztenek egunak eman dituztela ikusi gabe.
- Lagunen laguntza beti izan da eta, oro har, irakasleena, baina IKTen erabileran desberdintasunak daudela adierazi dute.
- 2020-2021 ikasturteak zailtasun gehigarri bat ekarri du egunean jartzeko, batez ere batxilergoko 1. edo 2. mailara igaro diren ikasleentzat.
- Oro har, distantzia soziala, maskararen erabilera, talde mugatuak errespetatu dituzte.
- Kexu dira birusaren hedapenaren errua gazteei leporatzeagatik.
- Aurrez aurreko hezkuntza nahiago dute, irakasleen kontaktu fisikoa eta hurbiltasuna eta arreta baloratzen baitituzte.

### **2.5.1. Unibertsitate-sarbiderako ebaluazioa**

Batxilergoko 2. urteko ikasle gehienak bereziki tenkatu ziren Unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren aurrean, pandemian sortutako egoeragatik.

Ikastetxeei ohiko probaren irizpideak bidali zitzaizkien. Ohiko proba hori uztailaren 6, 7 eta 8an ezohiko proba 20,21 eta 22an egingo zen, bai eta proba egiteko egin beharreko egokitzapenen informazioa ere.

Probaren egiturari dagokionez, malgutasun handiagoa eman zitzaion, eta, beste gai batzuei zegokienez, sartzeko eta irteteko ordutegiak, egoitzak eta epaimahaien kopurua handitu ziren, kontingentzia-planak sartu ziren, higiene- eta osasun-neurriak ezarrita.

Aldaketa esanguratsuena izan zen probak aukera gehiago ematen zizkiela ikasleei azterketa bakoitzean.

Berregituraketaren helburua programaren garapenean eragina izan zuten ezinbesteko inguruabarrak ziren, eta egoera horren aurrean ikasleen aukera-berdintasuna bermatu nahi zen.

Emaitza orokorrak onak izan ziren: aurreko urtean baino 0,2 puntu gutxiago gainditu zuten ikasleek eta % 9,77 ikasle gehiago aurkeztu ziren.

Laburpen gisa, honako hau esan daiteke:

- Ikastetxeetan inprobisazio-sentsazioa bizi izan zen erabakien izaera dinamikoagatik eta prozeduren diseinu berritzaileagatik.
- Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzeko ahalegina egin behar izan zen, jarraibideak zabaltzeko eta hezkuntzarako eskubidea baldintza onenetan bermatzeko.
- Ikasleek probetan edo probekin lotutako uneetan duten portaerari dagokionez (sarrerak, irteerak, atsedena, neurriak...), ez zen gorabeherarik izan.
- Irakasleak beste urte batzuetan baino gehiago inplikatu ziren epaimahai gehiago eratzeko eta laguntza- eta zaintza-lanak egiteko.
- Zuzendaritza-taldeei egokitu zitzaizkien arauak beteko zirela bermatzea.
- Emaitzak onak izan ziren: ohiko deialdian % 97,40k gainditu zuten proba, eta sexuen arabera oso parekatuak izan ziren: % 97,52 emakumeak izan ziren eta % 97,25 gizonak. Ezohiko deialdia % 85,28k gainditu zuten, % 86,13k emakumeak eta % 84,45ek gizonak.

Emaitzak, ikasgaika, Sarbide-fasean, eta Onarpen-fasean, gainditze-ehunekoaren arabera.

Sarbide fasea		Onarpen fasea	
Euskera eta Literatura	93,09%	Arte eszenikoak	100%
Ingelesa	90,98%	Geologia	100%
Alemán	90,74%	Grekoa	100%
Gaztelania eta Literatura	88,10%	Marrazketa teknikoa	89,30%
Matematika II	87,13%	Biologia	88,41%
Frantsesa	85,71%	Enpresa-ekonomia	87,96%
Artearen oinarriak II	85,23%	Ikus-entzunezko kult. II	85,29%
Espainiako Historia	79,98%	Kimika	84,08%
Latina II	77,09%	Geografia	76,19%
		Fisika	75,23%
		Artearen historia	75%

Sarbide fasean gai direnen ehuneko txikiena Gizarte Zientziei aplikatutako Matematiketan gertatu zen, % 46,58 eta Onarpen fasean ehuneko txikiena Filosofiaren Historian gertatu zen, % 73,40.

#### 4.-Haurrerako aukerak eta proposamenak:

Bititako esperientziaren aurrean, zalantza dago hezkuntzari ekiteko moduan erreferentea izango ote den edo kai efektua sortuko ote den eta, beraz, errutina ezagunak eta sendotuak berreskuratuko ote diren.

Hezkuntza-komunitatearen presentzialtasun-gogoia antzeman daiteke. Horren faltarekin, nabarmenago agertu da hezkuntzak familia eta lana uztartzeko betetzen duen funtzioa, baita

irakasleek ikasleen hezkuntzan oinarritzko hezkuntzaz haratago egiten duten funtsezko lana ere, zeharkako konpetentzien garapenean eta ikasleen sozializazio- eta orientazio-prozesuetan eraginez.

Agerikoa izan da, halaber, ikasleak ikastetxeetara joateak eragina duela aukera-berdintasunean, ikasleek izan ditzaketen gabeziak konpentsatuz.

Irakasleek aitortu dute egoera honek hausnarketarako eta autoanalisirako aukera argia eman duela. Konfinamenduaren uneak tentsioak eta zalantzak sortu zituen, eta horrek agerian utzi zituen zenbait gabezia, irakaskuntza-egoera ez-presentzian erantzuna mugatzen zutenak. Horren aurrean, irakasleek hezkuntza hobeto dezaketen ideia batzuk eman dituzte, bai salbuespeneko uneetan, bai eskolatzeko-egoera arruntetan. Ekarpak horiek honela laburbil daitezke:

#### 1.- Ikasleei dagokienez

- Zeregina antolatzeko autonomia garatzearen inguruko lana.
- Ziurgabetasunaren eta erresilientziaren kudeaketa.
- Emozioen kudeaketa.
- Zeharkako gaitasunen garapenean garrantzia.

#### 2.- Curriculuma

- Lehen hezkuntzan, arloko egungo sailkapena gainditzea eta ikaskuntza-esperientziak sustatzea, zeharkako gaitasunak, irakurketa eta komunikazioa, oinarritzko ezagutza matematikoa eta esperientziaren bidezko sozializazioa azpimarratuz.
- Bigarren Hezkuntzan, irakasgaiak eta ordutegiak bateratzea eta taldeak banatzea, gaitasunak garatzeko diziplinarteko proiektuen bidez lan egiteko, ikasleen motibazioa, interesa eta konfiantza sustatzen duten erronken bidez.
- Gutxietsi ohi diren espazio eta ikasgaietan arreta berezia jartzea (musika, artea, gorputz-hezkuntza).
- Ebaluazioaren azterketa zorrotza, ikasle bakoitzaren prozesua eta aurrerapena ebaluatzeko prozedura eta tresna berrien beharra.
- Unibertsitatera sartzeko ebaluazioen ereduak gainditzea, funtsean edukien memorizazioan oinarrituta.

#### 3.- Metodologiaren garapenean eragiten duten elementuak.

- Egitura malguagoak:
  - Espazioen antolaketa birformulatzea (irekiak eta erabilera anitzekoak gehitzea).
  - Jardueraren helburuaren arabera egokitu daitezkeen altxariak.
  - Eskolatik kanpo espazioak irekitzea.
  - Modu eraginkorragoan lan egiteko ratioa murriztea, taldekatzeen malgutasuna.
  - Ordutegi malguak eta eskola-espazioak birplanteatzea.

#### 4.- Irakasleak

- Irakasleak ikastetxeko proiektuaren beharren arabera eta ikastetxean prestatzea (metodologia alternatiboak, ebaluazio-irizpideak).
- Profil profesional berriak.
- Komunitatearen inplikazioa, parte sentitzen diren Hezkuntza-proiektu bat partekatuz.

- Berdinen arteko prestakuntza. Esperientzia arrakastatsuak trukatzeko profesionalen artean.
- Ikastetxeen sareak indartzea, Gizarte-zerbitzuekin eta Udalekin batera.

#### 5.- Familiak:

- Elkarrekin harremana, kezkak, beharrak eta parte hartzeko foroak hobetzea, ez bakarrik arazoak daudenean.
- Komunikazio-plataforma eta inplikazio-bide malguak.
- IKTen erabilerari buruzko prestakuntza.

#### 5.- Administrazioa

- Ikastetxeetako komunikazioa hobetzea.
- Baliabide pertsonalak eta ekonomikoak kudeatzeko benetako autonomia sustatzea.
- Zuzendaritza-talde prestigidunak eta egonkorak. Ongi prestatuak eta autonomiaz, lidergo pedagogikoa gauzatzeko, banatua eta aldaketarako irekia.
- Irakasleen egonkortasuna
- Proposamen sortzaileak aplikatzen dituzten ikastetxeentzako erraztasunak, Ikuskaritzaren kontrolarekin, baina neurri pedagogiko asko praktikan jartzea zailtzen duten muga burokratikoak murriztuz.
- Aldaketa eta berrikuntza-prozesuetan adituak diren pertsonen laguntza.
- Profesionalen arteko koordinaziorako denbora, bai ikastetxetik kanpo, bai ikastetxe barruan.
- Ekosistema birtual kooperatiboak garatzea.
- Irakaskuntzan sartzeko eredu berria.
- Familientzako gutxieneko baliabideak (gailuak eta konexioa) bermatzea ingurune ahulenetan.
- Sareko lana beste erakunde batzuekin (Udalak, Gizarte-zerbitzuak)

## B.- HEZKUNTZA HITZARMENA: EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN PROPOSAMENAK

### BERTARATUAK

Maite Alonso, presidentea  
Sonia Aldave  
Iker aldazabal  
Imanol Andetxaga  
Susana Aribayos  
Josu Badiola  
Diego Bande  
Nerea Begoña  
Begoña Cabria  
Agustín Eizagirre  
Lourdes Errasti  
Xabier Etxaniz  
Pablo García de Vicuña  
Ainara Ibañez  
Aitor Idigoras  
Carmelo Martínez  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Patxi Olabarria  
Irati Agorria  
Aitziber Oliban  
Samuel Pasandín  
Carlos Pereda  
Ainhoa Rotaetxe  
Irati Tobar  
Lucia Torrealday  
Eduardo Ubieta  
Ane Urkiola  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

**Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2021eko abenduaren 16ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko txostena: “Hezkuntza Hitzarmena. Euskadiko Eskola Kontseiluaren proposamenak”**

Honekin batera doan hausnarketa Kontseiluaren Osoko Bilkuran joan den urriaren 7an aurkeztutako dinamikatik dator, eta geroago Batzorde Iraunkorrean onartu zen.

Une honetan egiten ari den hausnarketa garrantzitsuari egiten zaion ekarpena azken bost txostenetan sortutako ondorioen eta proposamenen azterketatik abiatzen da, 2010-2011 ikasturtetik 2018-19 ikasturtera bitarteko denbora-tarte bat barne hartzen duena eta “Hezkuntzaren aldeko Akordiorako Oinarriak” dokumentuaren inguruan Kontseiluak egin zuen txostena. Halaber, Kontuan hartu da, Hezkuntza Sailak 2019-21 aldiari buruz egin berri duen diagnostikoa.

Informazio hori guztia sailkatu egin da, eta Kontseiluaren bost batzordeetako bakoitzari (Antolamendua, Plangintza, Hizkuntza Helburuak, Giza Baliabideak eta Finantzaketa) esleitu zaizkio bere eremuarekin lotura estuena duten gaiak.

Hala, batzorde bakoitzarako oinarrizko dokumentu bat egin da, batzorde bertan lantzeko.

Batzorde bakoitza bertako presidentek dinamizatu du (Batzorde Iraunkorreko kideak dira guztiak), eta sortutako eztabaida eta jasotako ondorioak hasierako proposamenaren aurrerapena izan dira, euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunari begiratzen saiatuz.

Batzorde Iraunkorrak horren guztiaren emaitza aztertu du, batzordeen emaitza biltzen zuen dokumentu berri batekin, eta Osoko Bilkuran onartu da.

### **1.- Ikasleak, euskal hezkuntza-sistemaren elementu nagusia**

Kontseilu honek dokumentuan zehar iradokitzen dituen gaiak erreferentzia argia dute: ikasleak, zeinei hezkuntzaren prozesu konplexuan inplikaturako pertsona guztiak errespetu eta dedikazio osoa erakusten diegun.

Horregatik, lehenengo puntu honetan, hezkuntza-arretarekin zerikusia duten zenbait gai landu ditugu hasieratik, haur-hezkuntzako lehen ziklotik hasita, 2. puntuan, eskolatzeko inklusiborako bermei buruzko gaiak, 3. puntuan, esparru eleaniztunari buruzkoak, 4. puntuan, irakasle-taldeari buruzkoak, 5. puntuan, ebaluazioari buruzkoak, eta 6. puntuan, aurrekontu-kudeaketari buruzkoak. Hori guztia, ikasleen garapen pertsonala, soziala eta profesionala errazteko, premia berriei eta ikasteko modu berriei erantzunez.

Kontseiluak urteak daramatza jaiotza-tasari eta gure sisteman matrikulatzeari buruzko datuak aztertzen, hasierako 0-2 tarteko plazen eskaintzari buruz ohartarazi du, eta arreta jaso duten haurren ehuneko handia aitortu du.

Aurreikuspenen arabera, jaiotza-tasak behera egiten jarraituko du datozen urteetan, eta horrek Haur Hezkuntzako egungo ereduak alda dezake. Gainera, 2019tik aurrera amatasunagatik edo aitatasunagatik berdintasunean gozatzeko ezarri diren neurri berrietatik abiatuta (16 astera luzatu da bikoteko kide bakoitzeko, eta horietako 6k bat etorri behar dute bientzat), haurtxoak etxean izateko aukera indartu egiten da, eta, ondorioz, 0-1eko tartean du eragina.

Bestalde, pandemiak zenbait familiaren jokabidea oztopatu du, etxetik kanpo haur txikiak zaindu eta zaintzeari dagokionez.

Beraz, hezkuntza-hitzarmenaren esparruan, honako gai hauei heldu beharko litzaieke:

- Alderdi horretan aurrera egiten jarraitzeko beharra, kontuan hartuta gizarteak aukerak eman beharko lituzkeela lehen urteetan uztartzeko aukerak zabaltzeko.
- Lehen zikloaren (0-3 urte) eta 2. zikloaren (3-6 urte) arteko lotura indartzea, etapaizaera izan dezan.
- Haur hezkuntzako etapako lehen zikloaren (0-3 urte) egoera aztertzea, eskaintza eskarira egokitzeko, bikoiztasunak saihestuz eta populazio horren arreta baldintza egoki eta jasangarrietan ziurtatuz.

Itxura guztien arabera, zaintza, ohitura osasungarriak eta estimulazioa maila egokira iristen ez diren girorik gabeko haurrentzat hezkuntza-arreta konpentsatzailea eta positiboa da lehen hilabeteetatik aurrera. Horregatik, arrakasta akademiko eta sozialean kalitatezko eskolatzeko goiztiarraren garrantzia aitortzen da, baina egiaztatzen da adin-tarte horretan eskolatzeko ehuneko txikiagoa dela familia kalteberen artean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren gizarte-premiei buruzko Inkestaren arabera (2018). Arrazoi posibleetako bat ekonomikoa izan daiteke, eta, horren ondorioz, gogoeta egin daiteke honako hauen inguruan:

- Udalerrri guztietan kalteberatasun-egoeretan dauden haurrei arreta goiztiarra emateko neurriak hartzea, etaparen finantzaketa/doakotasuna barne, inklusibotasuna errazteko eta bereizketa saihesteko helburuarekin.

- Osasun Sailak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta udalak eta aldundiak testuinguru ahuletan koordinatzeko prozeduraren bat ezartzea, adingabeen garapen integrala bermatzeko.

Adierazitako lehenetasunak kontuan hartuta, Kontseiluak baliabide gutxien dituzten familiei hezkuntza-zerbitzu hori izan dezaten laguntzeko beharrari ere erreparatu dio, baina Haurreskolen kasuan doakotasuna soilik aipatu du. Tratamendu orekatua egin behar da, doakotasun hori beste eskola batzuetara zabaldu behar da, heterogeneotasuna eta inklusioa sustatzeko. Horrek ez du esan nahi finantzaketak berdina izan behar duenik, testuinguruek ezaugarri desberdinak izan baititzakete.

Hori guztia ikusita,

- Proposatzen da doakotasunaren neurria 18.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituzten familientzat zabaltzea, baita beren seme-alabak udal eskoletan edo eskola pribatuetan matrikulatzen dituzten familientzat ere, horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.
- Baliabideen banaketari dagokionez, garrantzitsua da erakundeak deszentralizatzea eta kudeaketa hurbilagoa egitea, eskualdekoa eta udalekoa, finantzaketa horren baldintza eta kontrol egokiak ezarriz.

## **2.- Eskolatzeko inklusiboaren bermeak**

Euskal hezkuntza-sistemak proposatzen du, elkarbizitza izatea -zentzurik zabalenean- inklusioa eta ekitatea bultzatzeko hezkuntza -politika eta - programen ardatz, berezko identitate- ikur gisa. Horrek berekin dakar, ezinbestean, dibertsitatea aitortzea, hezkuntzaren arloko mota guztietako diskriminazioa edo bazterketak gainditzea, ikasle-taldeak kohesionatzea eta pertsona orori ikasteko aukera berdinak bermatzea.

Bizikidetzaren ardatz hartzen duen hezkuntza-sistema batek, pausoak eman behar ditu esku- hartze eredu integralagoetarantz; ikasle guztien inklusioa bermatuz eta ekitate-printzipioak aintzat hartuz, komunitate osoaren komunitate osoaren erantzunkidetasunean onarrituta, gure ikastetxeetan eta gizartean beharrezko elkarbizitza eta kohesio soziala bultzatuko dituzten esku- hartze eredu-erantz.

Ildo horretan, hausnarketarako bi eremu iradokitzen dira: plangintza eta ikastetxeetan esku- hartzea.

### **2.1.- Plangintza**

Eskola inklusiboak gizartearen kohesioa eta aurrerapena bultzatzen ditu, pertsonen garapena bultzatzeaz gain. Hezkuntza-sistemak bermatu behar du ikasle guztiek aukera berberak izatea.

Ikastetxe guztiek heterogeneoak izan behar dira, eta ikasle guztiei aukera eman behar zaie aniztasunean bizikidetzaren positiboa izateko eta ikasteko ingurune seguru bat izateko, gizarte kulturantzunetan bizitzeko prestatuko dituenak.

Pentsamolde kolektiboa aldatzen ari den arren, gizarteko sektore zabaletan oraindik ere mesfidantza dago, baita desberdinarekiko arbuioa ere. Askotan, desberdintasuna



desparekotasun bihurtzen da. Homogeneotasuna baloratzen jarraitzen da, egungo gizartearen heterogeneotasuna gero eta handiagoa den arren (edo horren ondorioz).

Hezkuntza-testuinguruaren aniztasun hori zailtasuntzat jotzen da batzuetan, eta segregazio altua duten eskolak egotea eragin dezake.

Ekitatea areagotzeko neurrietan inbertitzea errentagarria da epe laburrera eta luzera. Kalitate-sistema bat, haur-hezkuntzatik 18 urtera bitarteko doako ibilbidea duena, hezkuntza-sisteman aurrera egiten jarraitzeko edo lan-merkatuan behar bezala sartzeko oinarriak finkatzen ditu.

Ikastetxe publikoek eta itunpekoek berdintasunean hartu behar dute beren gain beren eskualdeko ikasleen hezkuntza-premia guztiei erantzuteko erantzukizuna, eta ez ikastetxe batzuek bakarrik hezkuntza-premia gehiago dituzten ikasleei eman diezaietela arreta. Abiapuntuko jarrerak gorabehera, beharrezkoa da bi sareetako ikastetxeen arteko hurbilketan eta lankidetzan aurrera egitea.

Ildo horretatik, Kontseiluak garrantzitsutzat jotzen ditu honako gai hauek:

- ISEI-IVEIk egindako ikerketaren arabera, beharizan gehien eta emaitza akademikoetan alderik handiena duten ikasleen banaketan hutsuneak zuzentzeko eta ikasle guztiei arrakasta emateko, plangintza-prozesuetan eta balio erantsia dakarten faktoreetan jarri beharko da arreta.
- EAEn etorkinen kopurua handitzeari dagokionez, ikastetxeetan onartezina da Euskadiko ikastetxeetan arrazoi sozioekonomikoengatik gaur egun dagoen bereizketa. Gerta daitezkeen egoeren arabera aztertzeke gai bat da, baina bidezko banaketa baterantz jo behar da, non finantzaketak paper garrantzitsua hartzen duen. Edozein neurri hartzen delarik ere, kontuan hartu behar da ikasle etorkinek gainontzeko herritarrek dituzten eskubide berberak dituztela nahi duten ikastetxean matrikulatzeko.
- Funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan ikasleak modu orekatuan eskolatzea ahalbidetuko duten neurriekin egin behar zaio aurre ikastetxearen hautaketari, gizarte-kohesioa hobetzeko eta ekitatea areagotzeko, kontuan hartuta familiek beren seme-alabentzako ikastetxea aukeratzeko indarrean dagoen eskubidea eta hezkuntza-agintariak hezkuntza/gizarte ekitatiboa eta inklusiboa lortzeko duten betebeharra.
- Plangintza-prozesuetan sistematikoki kontuan hartzea zonaldeen diagnostikoa, eskola-mapan definituta edo definitzeke daudenak, Ikuskaritzako eta Berritzeguneetako hezkuntza-zerbitzuen arreta ardazteko eta lehenesteko, bai eta hezkuntzakoak ez diren beste baliabide instituzional batzuen parte-hartzea ere, hala nola osasun- eta laguntza-zerbitzuena.

## **2.2.- Ikastetxeetan esku hartzea**

Kontseiluak sentsibilitate berezia erakutsi du baliabideen banaketari dagokionez, zuzkidura handiagoa behar duten ikastetxeek sarea bereizi gabe izan dezaten.

Ildo horretan egindako aurrerapenak garrantzitsuak izan dira ikastetxe publikoetan, hasieran proiektu espezifikoeekin, hala nola, Hamaika Esku eta beste ekimen batzuk, hala nola Magnet ikastetxeak, EUSLE gelak edo INE/ICE indizea. Ikastetxe itunduetan beharra dagoen heinean, baliabide publikoen hornikuntza modu analogoan egin beharko litzateke.

Atal honetan honako gogoeta hauek nabarmentzen dira:

- Berritzeguneko eta Ikuskaritzako zerbitzuen esku-hartze bateratua eta sistematikoa behar da, bai eta ekintza-plan adostu bat oinarri hartuta beharrezkoak diren beste batzuk ere. Plan horretan, zuzendaritza-taldeak gidatutako klaustro osoak parte hartu du.
- Hezkuntza-konplexutasunaren indizea erreferente izatea baliabideak kudeatzeko, eta, aldi berean, konplexutasun handieneko ikastetxeetan modu espezifikoan eta sistematikoan esku hartzeko beharra baloratzea.
- Arreta berezia jarri behar da langileen kalitatean eta beraien lan-baldintzetan, beren ohiko esleipenak dakartzan murrizketarik gabe, in situ erantzun ahal izateko ikastetxe horietan metatzen diren egokitze-premia linguistiko eta metodologikoei. Ikastetxeen ezaugarriak eta proposatutako lana ezagutzen dituzten irakasleak, horretan inplikatzeko motibazio handiarekin.
- Irakasleek konpondu ezin dituzten premiei erantzuten ezin dutenez, profil espezifikoa eta beharrezkoa duten profesionalak eskatuko lirateke ikastetxerako (gizarte- edo osasun-erakundeekin lankidetzeta-hitzarmenak).
- Profesional horiek jarduera-plan bat izan beharko lukete, beren zeregina eta zentroko gainerako langileena zehaztuz, eta kanpoko esku-hartzea aurreikusiz Ikuskaritzaren, Berritzeguneeen, Unibertsitatearen, Osakidetzaren edo gizarte-zerbitzuen bidez garatzeko eta jarraipena egiteko, besteak beste, eta prestakuntza-plan espezifiko eta tasatuak izango lituzkete, aipatutako eremuak hobetzeko.
- Era berean, ikastetxearen hezkuntza-proiektua eraldatzeko berariazko proiektuak garatzea aurreikusten da, baita horrek ingurunean duen eragina ere, eta familiek ikastetxean eta komunitatean duten parte-hartzea eta inplikazioa indartzea, lortutako lorpenei buruzko kontuak emanez.
- Familiek ikaskuntza-prozesuan duten zeregina ere funtsezkoa da, eta, beraz, ezinbestekoa da familiak ahalduntzea, modu positiboan eragin dezan seme-alaben ikaskuntzan. Familia guztietatik, oro har, eta, bereziki, ahulenetatik, behar diren sailen edo erakundeen arteko laguntzak izanda.
- Barneko (irakasleak eta irakasleaz ez diren langileak) edo inguruko beste hezkuntza-eragile batzuekin lankidetzan ere aurrera egitea iradokitzen da, hezkuntza-proiektuaren garapena edo eragina auzoan edo herrian gerta dadin.
- Egoera batzuek ratio txikiagoak eska ditzakete hezkuntza-laguntzaren berariazko premia dituzten ikastetxeetan. Ikasleen eta irakasleen ratioan eta taldeko ikasleen ratioan irizpide bereziak erabiliz arautu beharko lirateke, kideen eta etapa bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera, bereziki bigarren hezkuntzan eta batxilergoan.
- Eskolak genero-rolen buruzko kultura-baldintzatzaileak gainditu behar ditu. Horrez gain, ikasteko zailtasunak eta interes faltako zailtasunak dituzten gizonezko ikasleen arazo espezifikoari erantzunak bilatu behar zaizkio, eta bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatu behar dira, batez ere nesken artean. Ikastetxeetan berdintasun-planak indartzen jarraitu behar da.

- Bestalde, hezkuntza-sistema osoaren bikaintasunean aurrera egiteko, balio erantsia sortzen duten, eragile prestatzaile gisa parte hartzen duten eta jardunbide egokiak partekatzen dituzten ikastetxeei baliabideak, giza baliabideak zein baliabide materialak, esleitzeko orduan kontuan hartu beharreko irizpideak arautu beharko lirarteke.

### 3.- Marko eleanitza

Matrikulazioaren bilakaeraren ondorioz, sare publikoan ia eksklusiboa den D eredu ezarri da, eta itunpeko sarean eredu hori etengabe hazi da. Horregatik, Kontseiluak garrantzitsutzat jotzen du hezkuntza-akordioaren hausnarketa horretan D eredu garatzeko esparru bat ezartzea, egungo gizarte- eta hezkuntza-egoerei erantzuteko.

Lehentasunezko helburua ikasle euskaldun eleaniztunak lortzea izan behar da, gure kultura eta historia ezagutu eta eskubide osoko herritar sentituko direnak. Horrek esan nahi du, gainerako hizkuntzak eta kulturak errespetatuz, askotariko gizarte batean elkarrekin bizitzen ikastea eta gizarte-kohesiorako eragile aktiboak izatea.

Esparru horretan, honako gai hauek jorratu beharko dira:

- Hizkuntzen ikaskuntza integraturako esparru bat lantzea, hizkuntza ofizialen ezagutza bermatuko duena, lehen hezkuntza amaitzean bi hizkuntza ofizialerako erreferentziarako Europako esparru komunaren B1 mailara iritsiz, eta derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean B2 mailara iritsiz, hirugarren hizkuntza batean (A2 eta B1, hurrenez hurren) gaitasun-maila lortzeari dagokionez, elebitasun bermatua duen ikasle eleaniztuna lortzeko, gerora lan-arloko egokitzapen ona eta gizarte-integrazioa lortzeko lehentasunezko baldintza gisa.
- Helburuak eta proposamenek ikasle guztien ikaskuntzan arrakasta izatea izan behar dute ardatz, gizarte-kohesioa bermatuz eta eredu diskriminazio- edo segregazio-faktore izan ez dadin beharrezko neurriak hartuz.
- Beharrezkotzat jotzen da euskara familian eta gizartean ikasteko eta erabiltzeko aukerarik ez duten ikastetxeak era guztietako baliabideekin indartzea (ekonomikoak, metodologikoak eta pertsonalak, besteak beste). Berariaz jasotzen da ikastetxeekin (eskola-kontseiluak, zuzendaritza-taldeak, IGEak) lankidetzan aritzea euskara ikasten eta erabiltzen laguntzeko eskolaz kanpoko jarduerak ezartzeko laguntzak, bai euskarazko kirol-, gizarte- eta kultura-jarduerak sustatuz, bai eskola ondoko laguntza-programak, baterako tutoretza-programak, euskaraz ikasteko guneak eta abar ezarriz.

#### 3.1.- Testuinguru soziolinguistikoa

Familiako, gizarteko eta kulturako hizkuntza-testuinguruaren pisua funtsezkoa da euskara ikasteko eta erabiltzeko, bai eta hizkuntza horretan egiten diren beste ikaskuntza batzuetarako ere. Adin eta testuinguru batzuetan, euskara ez da komunikaziorako eta gizartea aberasteko hizkuntza gisa bizi, eskola-funtzioa soilik duen hizkuntza gisa baizik, eta horrek ez du sustatzen eskolaz kanpoko inguruneetan erabiltzea; beraz, beharrezkoa da:

- Euskara ikastetxeetatik kanpoko harremanetan, familietan eta ikasleen gizarte-inguruneetan erabiltzeak duen balioa agerian uztea, gizarte-kohesiorako eta

ikaskuntzari laguntzeko elementu gisa. Hizkuntzarekiko lotura afektiboa eta gizartean duen prestigioa sustatzea.

- Haur Hezkuntzako lehen ziklotik, curriculumak euskararen ikaskuntza, autonomia, hezkidetzeta, justizia soziala eta ikasleen garapena sustatu behar ditu. Euskarak presentzia txikia duen edo batere presentziarik ez duen testuinguru soziolinguistikoaren kasuan, lehen hilabeteetatik aurrera hezkuntza-arreta sustatzeak hizkuntza hori eskuratzea ekarriko du, eta oso onuragarria izango da gerora haurrak D ereduan ikasten badu. Eredu horretan eskolatzen dira EAEko ikasle gehienak.
- Testuinguru linguistiko, sozioekonomiko eta kultural bereizgarriek ikasleen erritmoetan eta ikaskuntza-emaitzetan duten eragin negatiboa gainditzea, bai euskararena, bai gainerako curriculum-ikaskuntzena, hizkuntza horretan.
- Hain euskaldunak ez diren inguruneetan, bereziki, ikasleek euskararekin harreman positiboa izan dezaten erraztea, eguneroko bizitzan balioa eman diezaieten. Alde horretatik, nabarmena da udalen inplikazioa ikasleentzako jarduerak sustatzeko, eskolaz kanpoko inguruneetan euskararen erabilera sustatzeko, gazteentzako gizarte-zerbitzuak garatzeko, aisialdiko jarduerak euskaraz egiteko, kultura-zerbitzuak eskuratzeko, eta abar. Gertuko erakunde eta udalen lankidetzeta hau ingurune guztietan bultzatzea komenigarria litzateke, jakina, ez solik zonalde erdaldunduetan, hauetan bereziki garrantzitsua bada ere.
- Kultura Sailarekin koordinazioa sustatzea, eta, zehazki, Hizkuntza Politikan duen planteamenduarekin, bereziki gazteenei zuzendutako euskararen erabilera sustatzeko ekintzak txertatze aldera, euskaraz bizitzea erakargarri eta baliotsua izan dadin haien beharretarako. Adibide bat, udan euskaltegi txikien proposamena izan liteke, ikasleek behar dutenean edo gehiago ikasi nahi dutenean euskara maila indartzeko B eredutik D eredura aldatzeko.
- Era berean, eskola-adinean dauden seme-alabak dituzten familiei eguneroko bizitzarekin lotutako euskal hizkuntzaren prestakuntza ematea planteatzen da.

### 3.2.- Alderdi metodologikoak marko eleaniztunean.

Hizkuntza-gaitasunak irakasteko prozesuak etengabeko ikerketa- eta berrikuntza-eremua dira. Ikasleak bigarren eta hirugarren hizkuntzetan sartzeko erronkari aurre egitea, bai hizkuntza horiek menderatzeko, bai komunikatzeko eta ikasteko tresna izan daitezen, ikastetxeen arreta erabilitako metodologietan ardaztu behar da, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da:

- Hainbat arlo eta mailatako irakasleen artean proiektu eleaniztunak egitea. Proiektu horietan, ikastetxe bakoitzaren egoera espezifikoak aztertuko da, eta ikasleen ikaskuntza hobetzeko aurreikusitako helburuak, plangintza eta esku-hartzeak zehaztuko dira.
- Ahozko adierazpena sustatuko duten ikaskuntza-inguruneak sustatzea, ikastetxeetako hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna ebaluatzeko proben ohiko zati izango direnak.
- Euskal Literatura irakurzaletasuna sustatzen duen irakurketaz gozatzeko tresna gisa sustatzea. Euskal literatura ozen irakurtzeak hizkuntza-artikulazio erritmiko eta egokiak garatzeko aukera ematen du.

- Ikastetxeetan liburutegiak eta udal liburutegiekiko lotura sustatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzeko metodologia komunikatiboa eta parte-hartzailea sustatzea. Horretarako, inbertsioak egin behar dira prestakuntza didaktiko eta pedagogikoan, euskararen gaitasuna hobetzeko.
- Berritzeguneez eta Hezkuntza Ikuskaritzak euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren jarraipen espezifiko eta lehentasunezkoa egitea iradokitzen da, EAEko ikastetxe askotan egiten diren jardunbide egokietan oinarrituta, orokortzearen ikuspegitik.
- Ikasleen irakurmenari buruzko ikerketa eta berrikuntza areagotzea, haien familia-hizkuntza, irakaskuntza-hizkuntza eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.
- Neurozientziaren eta pedagogiaren arloan egindako ikerketak kontuan hartzea, bereziki EUSLE esperientzia eta hizkuntza eraikitzeke aldordioak kontzienteki errazteko garatutako metodologia.
- Ikastetxeen arteko lankidetzak-sareak bultzatzea, hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko eraginkorrak diren eredu eta planteamendu didaktikoak gizarteratzen laguntzeko, esperientzia arrakastatsuak zabalduz eta antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeetan ezartzea erraztuz.

Atal zehatz batek gaitasun digitala eta euskarak baliabide digitalen erabileran duen zeregina merezi ditu:

- Baliabide digitalak irakaskuntzan kuantitatiboki eta kualitatiboki integratzeko bidean aurrera egiteko beharra planteatzen da, ikaskuntzarako dituzten abantailak aprobetxatuz.
- Ikasleen gaitasun digitalen garapenean komunikazio digitalean euskararen erabilera kontuan hartzea, euskarari balio eraginkorra emanez hizkuntza gutxituentzako ingurune zail batean.
- Euskarazko material digitalak sortzeak lehentasunezko arreta behar du. Era berean, garrantzitsua da funtzionatzen duten euskarazko materialak trukatzeko plataformen erabilera sustatzea, bai eta trukea erraztuko duten ikastetxeen arteko sare berriak ezartzea ere. Amarauna, Irakurgunea, Bizikasi, Steamgunea, EIMA, ...

### 3.3.- Irakasleen prestakuntza hizkuntzen eremuan.

Irakasleekin zerikusia duten alderdiek 4. atalean, irakasle-taldean, leku zehatza duten arren, Kontseiluak hizkuntza-helburuak garatzeko duen garrantziari buruz egin dituen gogoeta batzuk jaso dira:

- Irakasleak euskararen erabileran eta ikastetxeen hizkuntza-proposamenei erantzun egokia emateko metodologia didaktiko espezifikoetan gaitzea sustatzea.
- Unibertsitateekin irakasleen hasierako prestakuntza hobetzea eta egokitzea adostea, bereziki hizkuntza-gaitasunaren eta hizkuntzak irakasteko gaitasunaren ikuspegitik, hezkuntza-erantzuna gizararteak eremu horretan eskatzen dituen beharretara egokitzeko.

- Irakasleen irakasteko gaitasunaren ebaluaziotik abiatuta, prestakuntza-eskaintza (IRALE edo beste batzuk) egokitzea haien praktika hobetzeko, hizkuntzak irakasteko metodologia aurreratuen erabileran gaituz, euskararen irakaskuntza hezkuntza-testuinguru guztietan hobetuko duena, bai eta gaitasunak ebaluatzeko sistema ere, akademikoak, pertsonalak eta sozialak. Ekintza horrek eragin positiboa izango du ikasleek curriculum-arloetan duten ulermenean.
- Sailak planifikatu ditzala atzerriko hizkuntzan zehaztutako plazen beharrak, sistema osoan, eta behar horiek betetzea ahalbidetuko duten langileak prestatzeko eta kudeatzeko neurriak.

#### 4.- Irakasle-taldea

##### 4.1.- Irakasleen egonkortasuna

Lanpostuen ezegonkortasunak irakasleengan duen eragin negatiboa onartzen da, hezkuntza-proiektuen eta bestelako en garapenean eta ikasleen emaitzetan duen mugapenagatik. Gai ezaguna da, sindikatuek eta administrazioak jorratu dute, eta irtenbide sendoagoa eman behar zaio; horregatik, akordioaren esparruan, Kontseiluak honako gai hauen inguruan aurrera egitea iradokitzen du:

- Hezkuntza-sistemako langileen kudeaketa malgua, plantillak finkatzeko irizpide arautuak sartuz ikastetxe guztientzat, batez ere identifikatutako zentroetan, bai landa-eremuetan daudelako edo urrun daudelako, bai banantze-maila dutelako, beste kudeaketa pertsonal bat behar baitute langileen egonkortasuna bermatzeko, eskaintzen duten irakaskuntzaren kalitateari begira.
- Helburu horrekin, honako hau iradokitzen da:
  - Zentroan gutxieneko egonaldi bat ezartzea, eta hurbileko eremuetan bizi diren eta zentro horietan lan egin nahi duten langileak edo horretarako bereziki motibatuta dauden pertsonak izatea.
  - Ikastetxe horietan egonkortasuna lortzen laguntzen duten irakasleentzako sariak eta pizgarriak sustatzea.
  - Egoera jakin batzuei erantzuteko bereziki prestatutako eta motibatutako irakasleen profilak sortzea.
  - Ikastetxeen autonomia sustatzea, irakasleak erakartzeko eta atxikitzekeo proiektu erakargarriak sor ditzaten, betiere, funtzio publikoaren sarbiderako oinarrizko printzipioak errespetatuz: berdintasuna, merituak eta gaitasunak.
  - Irakasleen eta irakasle ez diren langileen lan-esparrua eguneratzea.
- Plantillak ordezkatzeko eta gaztetzeko beharra, sindikatuekin adostasunez, irakaskuntza-profil berriak sortzarekin batera, oinarrizko elementuak dira, egonkortasunari ez ezik, hezkuntza-erantzunaren kalitateari ere lotuta, etengabeko aldaketako testuinguru batean. Profil berri horiek irakasleak eguneratzea eta prestatzea eskatzen dute, baita funtzioak berrikustea eta sortzen ari diren eskakizunetara eta zeharkakotasun handiagoz lan egitera egokitu daitezkeen titulazioak sartzeko ere.

#### 4.2.- Irakasleen lanbidearen garapena

Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du irakaslearen karrera profesionala garatu behar dela, ikasleen ikaskuntza areagotzearekin lotutako lorpenak eta hobekuntza-ahaleginak baloratu eta saritzeko.

Gaur egun, gai hori banakako prestakuntza eta ebaluazioarekin lotzen da, eta horrek ez du bermatzen ikastetxearen hobekuntza. Gainera, zalantzan jartzen da lorpen hori gertatzen denean baloratzeko sistema.

Irakaskuntza-funtzio publikoa seiurtekoen kapitalizazio bihurtu da, eta, horrela, gerta daitezkeen arrakalak edo aldeak saihestu dira; hala ere, irizpide hori bidegabea izan daiteke, antzinasuna bakarrik hartzen delako kontuan, eta ez jarduna, eta, beraz, langileen artean desberdintasuna gertatzeko arriskua dago.

Egia esan, administrazio orokorrean eta osasun publikoan maila desberdinak daude, eta horiek gainditu daitezke edo ez, pertsona bakoitzak erabakitzen duenaren arabera. Horrek hezkuntza-eremuarekin alderatzeko bidegabekeria dakar; izan ere, zuzendaritzan edo laguntza-zerbitzuetan jarduteko aukerak kenduta, ez dago beste aukerarik.

Bestalde, badirudi beharrezkoa dela motibazioa eta asmoak sustatzea, aldaketa-aukerak eskaini behar zaizkion lanbidean diharduen langile-mota bati begira. Hori dela eta, kontuan izan behar da:

- Sistemak bere langile guztiak motibatzen saiatu behar du, horrek hobekuntza kolektiboa ekarriko baitu, sistemako irakasle guztientzat berdina ez diren abiapuntuko baldintzei buruz hausnartuz.
- Tarte eta baldintza posibleak diseinatzea proposatu behar da, eta pizgarri ekonomikoa ez da baliabide bakarra.
- Prozedura garden batetik abiatu behar da, non aurretiki argi eta garbi zehaztuta dagoen nola egiten den irakaslearen jardun onaren balorazioa.

#### 4.3.- Ikastetxeetako zuzendaritzak

Argi dago zuzendaritza-lidergoak eragina duela ikastetxeen dinamikan. Hala ere, irakasleen artean hautagaitza aurkezteko motibazio falta ikusten da, baita zuzendaritzak klaustroarekiko izan dezakeen atxikimendurik eza ere, kudeaketa burokratikoaren eskakizunek gora egin dutelako.

Egungo zuzendaritza-taldeek gehien interesatzen zaien gaietako bat ikastetxeen autonomia handitzea da, beren komunitateari hezkuntza-aukera onenak eskaintzeko zer egin nahi duten definitzeko.

Beraz, kezka honako alderdi hauen ingurukoak dira:

- Ikastetxeetako zuzendaritzak gero eta konplexuagoak direnez, ezinbestekoa da prestakuntzan eta kudeaketa eraginkorra lortzeko behar diren baliabideetan inbertitzea.

- Pertsona horiek orain arte administraziora mugatzen ari diren kudeaketa- eta antolaketa-eremu garrantzitsuetan esku hartu ahal izan dezaten gaitzea eskatzen du, hala nola funtsen kudeaketan, zerbitzu osagarrien kudeaketan (garraioa, jantokia, etab.), plantillen profilazioan edo ikastetxearen antolaketa-egitura bera ezartzeko gaitasunean, besteak beste, Sailarekin berariazko akordioen bidez.
- Zuzendaritza-eremuan interesa izan dezaketen pertsoneri arreta eta detekzioa eman behar zaie, seguruago eta lagunduago senti daitezten. Ildo horretan, gaitasunen garapenerako hautagaiak prestatzeko deialdi espezifiko bat proposatu ahal izango litzateke, betiere, kargua lidergo partekatuen ikuspegitik betez, gainerako profesionalei helarazteko gai badira.
- Erreleboaren kultura sortu behar da, eta, horretarako, ikastetxeetan dinamikak behar besteko aurrerapenarekin ezarri behar dira.
- Zuzendaritzaren dedikazioa aintzatesteko mekanismoak berrikusi behar dira.

#### **4.4.- Irakasleen prestakuntza**

Ikerketaren arabera, irakasleen kalitatea da ikasleen emaitzei gehien eragiten dien aldagaietako bat. Ezbairik gabe, une honetan eta etorkizunari begira, espero ditugun aldaketek eragin zuzena dute irakasleen prestakuntzan, beren lanari arrakastaz ekin diezaioten; beraz, ezinbestekoa da hasierako eta etengabeko prestakuntza egokitzea, dimentsio sozioemozionala barne.

Irakasleen prestakuntza curriculumean ezarritako lehentasunei lotuta dago, bai edukiari dagokionez, bai hura garatzeko metodologiari dagokionez. Hala ere, zalantzak sortzen dira eraldaketa metodologikoaren aldeko apustuari dagokionez, zientifikoki behar bezala bermatuta ez dagoenean. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da:

- Ikastetxean mailakako prestakuntza sistematizatzea, antzemandako beharretatik abiatuta. Ikastetxe bakoitzak bere prestakuntza-plana izan behar du irakasle-talde osoarentzat, eta gero eta presentzia handiagoarekin, irakasle ez diren langileentzat. Banakako prestakuntzak ez du komunitate-ikuspegia bermatzen, hori baita lehentasuna.

#### **4.5. Irakasleen lan baldintze egonkortasuna**

Irakaskuntza publikoko irakasleen kolektiboan lan-marko egonkor baten beharra aztertu beharra dago, indarrean dagoena iraungita baitago duela 10 urte. Euskal Hezkuntza sistemaren egonkortasuna eta kalitatea bermatzeko, berau osatzen duten langile guztien lan baldintzak arautuak, adostuak eta eguneratuak egon beharko lukete.

### **5.-Ebaluazioa, hezkuntza hobetzeko tresna**

#### **5.1.- Ikasleen ebaluazioa eta curriculum**

Ikerketak eskola-arrakasta errazten duten alderdi batzuk argitzen ditu, arrakasta hori modu globalean ulertuta, eta ez da dimentsio kognitiboan soilik zentratzen. Hala, oinarritzko gaitasunak garatzea funtsezkotzat jotzen da, ezagutzak ikastea alde batera utzita.



Curriculumak kudeatzerakoan, kontuan hartu behar dira irakurmena eta ikasten ikasteko gaitasuna, oso baliagarriak baitira instrumentuak direlako.

Gainera, egungo krisi ekologikoaren aurrean, euskal hezkuntza-sistemak planetaren iraunkortasuna defendatzeko pertsona kritikoak eta trebeak hezteko betebeharra du.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da hezkidetzaren aldeko apustua egitea, genero-estereotipoak ezabatuz eta hezkuntza afektiboa eta sexuala zeharka landuz.

Azkenik, ikasleen bizi-proiektua garatzen laguntzeko, oso garrantzitsutzat jotzen da ikasleen orientazio integrala (ikaskuntza, hautazkotasuna, ibilbideak, irteera profesionalak, etab.) oso txikitatik, beren familiekin lankidetzan.

Ikaskuntzarako baldintza gisa ingurune seguru eta inklusiboak behar direla egiaztatu da; bestalde, inolako oinarri zientifikorik gabeko aldaketa metodologikorako proposamenak eta horren ondorioak zalantzan jarri beharko lirarteke.

Kontseiluak akordioan kontuan hartu beharreko gai garrantzitsutzat jotzen ditu honako hauek:

- Zientifikoki egiaztatutako estrategien erabilera bultzatzea, ikasleen ikaskuntzen lorpena sustatzeko.
- Hasierako prestakuntzan gaitasunen araberako prestakuntzak duen garrantzia nabarmentzea.
- Gatazka hautematen da ikastetxeetara iristen diren eskaera kopuruari dagokionez, alde batetik, administrazioaren lehentasunezko ildoetatik, eta, bestetik, gizartearen eskarrietatik, kontuan hartuta curriculumak diseinatzeak eta garatzeak dakarten zailtasuna, nahi den guztia kontuan hartzeko, hau da, horiek lerrokatzeko.
- Zalantza handiak sortu dira konpetentziak lortzeko kontzeptuzko ezagutzarik behar ez dela edo memorizazio-praktikak ezabatu beharko lirartekeen ala ez. Halaber, zalantza garrantzitsuak sortu dira horien ebaluazioaren inguruan.
- Beharrezkoa ikusten da irakasleen prestakuntzan aurrera egiten jarraitzea, gaitasunen araberako curriculumak diseinatu eta garatzeko, eredu horren erregulazioan ikerketaren emaitzak kontuan hartuta, batez ere ebaluazioaren esparruan.
- Beharrezkoa ikusten da ikastetxeetan aurrera egitea diziplinarteko proiektuen diseinuan, interes komunekin ardatz batekin, eta ardatz horretatik abiatuta aurreikusten da gaitasunak garatzea.
- Ikasleen ebaluazioa, oro har, arautzeari buruz hausnartu behar da, eskola-arrakasta sustatuz eta baloratuz, eta ez soilik arlo kognitiboan zentratuz. Ikasleen barne-ebaluazioari dagokionez, edukiak ez ezik, gaitasun-elementuekin lotutako beste ikaskuntza-emaitza batzuk ere ebaluatzearen garrantzia azpimarratzen da, hala nola motibazioa eta parte-hartzea, bai eta garapen sozialarekin eta pertsonalarekin lotutako beste alderdi batzuk ere.
- Zehazki, hezkuntza-sistemara berandu iristen diren eta curriculumak jarraitzeko hizkuntzan maila egokia lortzen ez duten ikasleen inguruan hausnartu behar da.

- Ikaskuntza eta garapena bultzatzeko estrategia gisa errepikapenaren eraginkortasun eskasa berresten da, ikaskuntza erraztuko duen kalitatezko feedback eta orientazio garaiz eta pertsonalizatuaren garrantziarekin kontrastean.

## 5.2.- Irakaskuntza- eta zuzendaritza-eginkizunaren ebaluazioa

Irakasleen kalitateak ikasleen arrakastaren faktore gisa duen garrantzia onartzen da, eta, beraz, haien jarduna ebaluatzea funtsezko tresna da hobetzeko eta lanbide-garapenerako. Era berean, garrantzitsutzat jotzen da ikastetxeetako zuzendaritzak indartzea, lidergo pedagogiko banatua eta kudeaketa eraginkorra sustatuko dituen prestakuntzaren bidez.

Zalantzarik gabe, ebaluazioa beharrezkoa da hobetzeko, eta aurrera egiten ari da ebaluazioaren kulturarantz. Ikastetxeek ebaluazio-ekimenak garatzen dituzte irakasleen artean. Praktikak kontrastatzen dituzte eta egiten denetik ikasten dute; gainera, zalantzan jartzen da ebaluazioa praktiketako funtzionarioei edo zuzendaritza-taldeei bakarrik egitea.

Hautaketa eta trantsizio profesionaleko prozesuak zaindu behar dira (harrera/mentorizazioa), baina baita etengabeko prestakuntza ere.

Kontseiluak garrantzitsutzat jotzen ditu honako gai hauek ebaluazioari dagokionez:

- Zuzendaritzaren eta ikastetxearen irakaskuntzako eta irakaskuntzaz kanpoko ebaluazio-proposamenetan aurrera egitea, eta emaitzen prozedura, erabilerak eta ondorioak ezartzea, norberaren hobekuntzari eta garapenari begira.
- Irakaskuntza-jardunaren ebaluazioak lotura estua du ikastetxearekin eta sistemarenekin, eta hiru zutabe horiek atzeraelikatzen dira. Planteamendu hori eskalagarria da, azken emaitzan eragina duten elementuen hobekuntzan esku har daiteke. Administrazioak ikastetxeei zuzentzen dizkien proposamenak ebaluatzeko ardura du, sistema osorako eta irakasleentzako irizpide argiekin. Era berean, ikasleekin esku hartu behar du, ikuspegi komunitario bat bultzatuz, ikastetxearen ebaluazio-kulturakoa, ikuspegi indibidual baten aurrean. Ebaluazioaren burokratizazioaren arriskuaz ohartarazten da, eta hori saihestu egin behar da benetan hobetzeko tresna izan dadin.
- Irakasleen lanbidean sartzeko prozesua hobetu beharko litzateke hasierako prestakuntzatik, zerrendetan sartzetik eta oposizioetan sartutako probetatik pasatuz. Hori guztia, ikasleekin garatu behar duten curriculumarekin bat datorren gaitasun-maila erakusteko beharretik abiatuta.

## 5.3.- Sistemaren ebaluazioa

Kanpo-ebaluazioak hezkuntza-sistema ebaluatzen laguntzen du lehentasunez, eta haren erabilgarritasuna egiaztatzen da, konparatzeko ahalmena duelako. Pixkanaka-pixkanaka, sistemaren zentro guztientzat hausnarketarako eta erabakiak hartzeko palanka gisa duen erabilgarritasuna onartzen ari gara, eta, era espezifikoagoan, ikastetxeen hobekuntza-planak proposatu eta garatzeko eta, aldi berean, barne-ebaluaziotik eratorritako informazioarekin osatzeko beharra berresten ari gara.

Honako gai hauek proposatzen dira esparru honetan gogoeta egiteko:

- Hezkuntza-sistemaren ebaluazioan aurrera egitea, ikastetxeei egokitutako adierazleak, programak eta planak garatuz. Ikastetxeek, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzearekin, aurrera egin behar dute autoebaluazio-prozesuetan, etengabe hobetzeko helburuarekin.
- Barneko eta kanpoko ebaluaziotik eratorritako informazioa kontuan hartu behar da sistema eta ikastetxeak hobetzeko abiapuntu gisa; izan ere, zentro horiek gai izan behar dute hobetzeko planak autonomiaz ezartzeko, Berritzeguneen laguntzarekin eta Ikuskaritzaren jarraipenarekin. Burokratizazioa saihestea eta irakasleen inplikazioa lortzea ezinbestekoak dira plan horien diseinuan, garapenean eta ebaluazioan. Ikastetxeetan jardunbide egokiak eta kalitatezko materialak zabaltea eta transferitzea baloratzen da.
- Bi kezka sortzen dira kanpo-ebaluazioari dagokionez. Alde batetik, nolabaiteko nekea sumatzen da zentroetan, eta horrek eragina izan dezake emaitzen baliozkotasunean eta fidagarritasunean. Bestetik, gehiegizko garrantzia ematen ari zaio emaitzak zabaltzeari, etengabeko ebaluaziotik datozen beste datu batzuk kontuan hartu gabe.
- Kanpoko ebaluazioan irakaskuntza-praktikak ikasleen emaitzetan duen eragina kontuan hartu beharreko beste gai bat da, ematen zaion eragin handiagatik; hala ere, ohiko aldagaiak egokitasunari, ISEKari, sexuari, ama-hizkuntzari, jatorriari eta abarri buruzkoak dira. Kanpo-ebaluazioaren praktikak ikastetxeentzat eta sistemarentzat balio duen informazio kantitatea sortu duela egiaztatu da, baina formatua eta/edo prozedura berrikusi beharko lirateke.

## 6.- Aurrekontuen kudeaketa

Txosten guztietan, 2017-19 epealdiari dagokion azkenekoan izan ezik, euskal hezkuntza-sistemaren finantzaketari buruzko ondorioak eta proposamenak aztertu eta sartu dira.

Horretarako,

- Aldagai sozioekonomiko eta adierazle ekonomiko nagusiak kontuan hartu dira, beste erkidego eta herrialde batzuekin alderatuta,
- Eustaten estatistiken zentro publiko eta pribatuen gastu-datuak
- Sailaren aurrekontuak kapituluka eta programaka berrikusi dira.
- Itun-moduluei eta itunpeko gelei buruzko datuak aztertu dira.

Bi aldiz (2010-12 Txostena eta 2017-19 Txostena), Kristau Eskolak boto partikular bana aurkeztu du, non adierazten den ez dagoela sare batean eta bestean finantzatzen diren datu esanguratsurik – Kontzeptuak eta zenbatekoak –, euskal hezkuntza-sistemaren errealitatea zorrotz islatzeko.

Datu horien artean, honako hau eskatzen da:

- Sare publikoan eta itunpekoan etapa eta hezkuntza-maila bakoitzean ikasgelak duen kostua, itun-moduluaren benetako estaldura ezagutzeko beharrezkoa dena.
- Batetik bestera bideratutako baliabide ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzea, kontuan hartuta ikasgelaren, ikaslearen, irakasle/ikasle ratioaren eta ikasle bakoitzeko baliabideen benetako kostua, hori guztia publikoarena eta itunpekoarena.

Egia esan, Kontseiluak bere proposamenetan defendatu du finantzaketa-eredu adostu eta egonkor bat behar dela, hezkuntza-akordioaren esparruan planteatu beharrekoa:

- Sare publikoko eta itunpeko ikastetxeen premien arabera, hezkuntza-gastuaren bilakaera aztertzeke adierazle ekonomikoen oinarri batekin (irizpide objektiboak, egoera edo gertaera objektibo eta neurgarrietan oinarritzen direnak). Hobekuntzarekiko konpromisoan egiten diren inbertsioen/gastuaren azterketa ekonomikoa egitea falta da, ikastetxea ardatz hartuta.
- Kontuan hartu beharreko alderdi bat azpiegiturena da. Azpiegitura-planen proposamenak eta exekuzioak eta hasi berriak diren beharrak kontuan hartuta, beharrezkoa ikusten da eraikinetako inbertsioa arrazionalizatzea eta, lehentasunez, eskola-plaza berriak eskatzen diren egoerei erantzutea, azpiegiturek baldintza optimoak betetzen ez dituztenean (batzuk aurrefabrikatuta edo oztopo arkitektonikoak daudenean), edo iraunkortasunaren ikuspegitik hobetzea eskatzen dutenean. Hori guztia ikasleen kalitatezko eskolatzearen beharrei ahalik eta gehien erantzungo zaiela bermatzeko, haien erabilera auzo, herri eta eskualdearen ikuspegitik optimizatuz.
- Era berean, hezkuntza-komunitateak baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzeko konpromisoa hartzea eskatzen da; horretarako, beharrezkoa ikusten du egiten den ahalegin ekonomikoaren kontzientzia sustatzeko sortzen den gastua gehiago zabaltzea eta zehaztea.

## **7.- Parte-hartzea eta etorkizuneko erronkak Euskadiko Eskola Kontseiluarentzat**

### **7.1.- Politiken motibazioan eta gobernantzaren kudeaketan parte hartzeko eskubidea baliatzea**

Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia-estatutuaren arabera, pertsona guztiek Euskal Herriko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte har dezaten errazteko agindua ematen zaie botere publikoei.

Estatututik gaur egunera arte, gizartearen parte-hartzearen ideari indartsu eusten zaio; gainera, une honetan, Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria argitaratu ondoren eta kide anitzeko organoak ebaluatzeke eta hobetzeko konpromisoa garatu ondoren, eszenatoki berri baten aurrean gaude, euskal sektore publikoaren lege-proiektu baten aurrean, 18. eta 19. artikuluetan Euskadiko erakundearen antolamenduari buruzko II. tituluan kide anitzeko organoak eta herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorak jasotzen dituen.

Gobernantzaren bidez, pertsona guztien bizitzan eragina duten erabakiak hartzen dira. Entzutea, parte hartzea eta proposamen partekatuak egitea osasun onaren balioa eta adierazlea da gobernantzarako.

### **7.2.- Nola ulertzen dugu parte-hartzea?**

*“Herritarren parte-hartzea ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboko prozesu bat da. Harremanak, erantzunak eta ekintzak eraldatu nahi ditu, pertsona guztiei espazioa eta hitza*

*emanez balio publikoaren sorkuntzan beren erantzukizuna eta eragiteko ahalmena balia ditzaten.*"<sup>1</sup>

Eskubide bat eta betebeharrak bat da, eta arautu egin behar da eskubide hori erabili ahal izateko.

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak ekintza politiko eta sozialetan parte hartzeari buruz 2018an emandako datuen arabera, elkarrizketatutako pertsonen % 42k ez zuen inolako ekintzetan parte hartu, baina % 58k parte hartu zuen. Egia esan, 2012. urteaz geroztik, urtetik urtera handitu egin da partaidetza-maila, une hartan ehunekoa % 45 izan baitzen.<sup>2</sup>

Argi dago gaur egun herritarrek baliabide gehiago dituztela kudeaketa publikoari buruzko informazioa lortzeko, baina, aldi berean, zorrotzagoak dira erabakiak hartzerakoan, eta, beraz, parte-hartze handiagoa eta gardentasun handiagoa eskatzen dute.

Ez dago partehartze egokirik aurretiko informaziorik gabe. Horregatik, Administrazioaren arduradunek, partehartzearen garrantziaz ohartuta, gure hezkuntza sistemaren inguruan beharrezkoa den informazio eguneratu, zuzen eta zabala eman behar diote hezkuntza komunitateari, baita horren parte den Euskadiko Eskola Kontseiluari ere.

Parte-hartzeak lotura estua izan behar du erabakiak hartzearekin eta parte hartzen den eremua hobetzen laguntzeko inplikazioarekin eta konpromisoarekin.

### **7.3.- Hezkuntza-eremuan parte hartzea eta hezkuntza-sistemaren gobernantza.**

Ikastetxeek beren zuzendaritza-taldeetatik, ordezkaritza-organo gorenetik eta klaustrotik gauzatzen dute gobernantza, Batzorde Soziala, Lanbide Hezkiketako ikastetxe integratuen kasuan eta batzarra eta artezkaritza kontseilua kooperatibetan. Egitura batzuek familien edo ikasleen elkarleen bidez parte hartzea errazten dute.

Lehen aipatutako inkestan IGE bateko kide izateari lotutako itemari erreparatzen badiogu, % 81ek erantzun du ez dela inoiz kide izan, % 9k lehen bai eta orain ez, % 3k parte hartzen du, % 5ek parte hartzen du eta % 2k ez daki, ez du erantzuten.

Euskadiko Eskola Kontseilua errealitate horren jakitun da, ikastetxeetako eskola-kontseiluetan edo ikastetxeko beste partaidetza-egitura batzuetan, bere ingurunean edo beste ikastetxe batzuekin batera, dagoen hobekuntza-marjina den bezala.

Beharrezkoa da entzutea, sentsibilitate desberdinak errespetatzea eta hezkuntza hobetuko duten ideiak eta proiektuak lantzea sustatuko duten foroak egokitzea. Izan ere, dakigunez, hezkuntza oso eremu sentikorra da, egungo eta etorkizuneko euskal gizartean duen eraginagatik.

Ildo horretan, Eskola Kontseiluei buruzko indarreko Legeak partaidetza-maila desberdinak arautzen ditu.

Lurralde-maila ez da garatu, bilgunearena, 1996ko Dekretuan argitaratutakoa, eskola-mapa eratzeko erabili zen.

Udaleko eskola-kontseilu batzuk gero eta leku handiagoa hartzen ari dira, udalerriko ikastetxeetan eragina duten parte-hartzea eta erabakiak hartzea sustatuz.

---

<sup>1</sup> [Demokraziari eta herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria](#)

<sup>2</sup> [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#)

Kontseilu honek positibotzat jotzen du udal eskola-kontseiluen funtzionamendua indartzea etorkizunari begira, testuinguruak hezkuntzan duen eragina aldagai erabakigarria baita. Zentzu horretan, udalerrri edo auzo jakin bateko gizartearen bilakaeran eragina duten gai batzuen kudeaketan tokiko parte-hartzea izateak, a priori, administrazio-kudeaketaren eta inplikaturako komunitatearen beraren eraginkortasuna hobetu dezake. Hala, honako gai hauek lehenetsi daitezke eskola-kontseiluetatik: haur-etapako lehen zikloko eskolatzea, hezkuntza-laguntzako berriazko premien aurrean esku-hartze goiztiarra izatea, aniztasunari heltzea gizarte-kohesioaren mesedetan, euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea eta herritarrak ezagutzea eta gozatzea ekarriko duten kultura-jarduerak bultzatzea, familiak prestatzea edo makro proiektuak egitea (hiri hezitzaileen kasuan, esaterako).

#### **7.4.- Euskadiko Eskola Kontseilua: etorkizunerako erronkak**

Lege horretan bertan, 1988koan, araututa dago, euskal eskola publikoaren legeak egindako zenbait aldaketarekin, eta berriki, 2018an, haren osaera aldatzearen ondorioz, hainbat unetan planteatu da araudia eguneratzeko beharra, zenbait alderditan zaharkituta geratu dela eta egungo eskaerek eta lehentasunek beste planteamendu batzuk behar dituztela iritzita.

Dena den, horri buruz hitz egiteko bi une esanguratsu nabarmendu daitezke.

Lehen, 2015ean, Kontseiluaren egituraren ez baitzen bete zerbitzu-eginkizunen bidez sartutako teknikarien lanpostua, zeren lanpostu hori ez zen inoiz islatu lanpostuen zerrendaren egituraren.

Bigarrenik, aurreko legegintzaldian hezkuntza-akordiorako lehen urratsen esparruan egindako lana, araua berritzeko beharra planteatu baitzen.

Egindako guztia kontuan hartu da hausnarketa-esparru berri batean, eta honako ondorio hauek aterata dira, haien funtzio/zeregin nagusiak eta egitura ezartzeko:

1. Kontseilua hausnarketa-foro bat da, entzumena eta pentsamendu kolektiboa lantzea sustatzen duen hezkuntzaren hobekuntzari buruzko kezka eskuarki xede horretarako bat etortzeko aukerarik ez duten eragileekin partekatuzeko, elkar sortzeko.
2. Sektoreen arteko ezagutza sustatzen du, aurreiritzien edo mito faltsuen desagertzea sustatuz eta adimen kolektiboak dakarren enpatia eta eskuzabaltasuna sustatuz, balio erantsia sustatuz, hasieran emandakoa baino emaitza hobea lortuz.
3. Parte-hartzea sustatzen du, ahalik eta zuzenena gerta dadin». Bileretara joatea errazteko teknologiaren erabilera areagotu behar den arren, parte-hartze presentzialak, oro har, berezko elkarreragin-une gehiago sustatzen ditu teknologien erabilerak sortzen dituenak baino, eta Kontseiluan balioa ematen zaio zuzeneko, adeitasunezko eta gertuko harremana izateko aukerari, parte-hartze hobea eta adostasun-maila hobea lortzeko.
4. Hezkuntza-ezagutza zorrotz eta inpartzialtasunez sortzeaz gain, zabaldu egiten du, Hezkuntza Sailari berari eta gizarte osoari jakinarazteko.
5. Euskadiko Eskola Kontseiluaren oinarritzko araudia Hezkuntzari buruzko Lege berriaren barruan sartzen da, horretarako eskola-kontseiluentzako lege propioa eta espezifiko bat eduki beharrik gabe. Indarrean dagoen Legeak, kasu batzuetan, Kontseiluaren jardura mugatu du, eta, maila horretako arau bat aldatzeko zailtasunagatik, gaindituta egon beharko luketen alderdi batzuk irauterazi ditu.

6. Beharrezkotzat jotzen da, halaber, Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen Dekretua eta haren funtzionamendu-araudia eguneratzea.
7. Eguneratze horien helburua da egitura, funtzioak, esku-hartze mailak eta horien arteko harremana berregokitzea.
8. Euskadiko Eskola Kontseilua kide anitzeko organo gisa mantendu behar da, informazio-, kontsulta- eta aholkularitza-eginkizunak betetzeko eta hezkuntzan inplikaturako gizarte-sektoreen parte-hartzea bultzatzeko.

#### **7.4.1.- Funtzioak eta zereginak:**

Lehenik eta behin, Kontseiluak oinarritzat eta beharrezkotzat jotzen dituen eta gaur egun neurri handiagoan edo txikiagoan garatzen dituen eginkizunak sartzen dira. Ondoren, azalpen handiagoa behar dutenak, araudi berri baten esparruan kontuan har daitezkeen proposamen berriak direlako.

Oinarrizko funtzioak eta zereginak:

- Hezkuntza Sailak eskatzen dizkion irizpenak egitea, hezkuntza-irizpide justifikatua eta zehatza emanez arau-proposamena hobetzeko.
- Euskadiko hezkuntzaren egoerari buruzko bi urtean behingo txostena egitea.
- Hezkuntza-ezagutza sortzea eta zabaltzea, hezkuntza-komunitateari irekitako jardueren bidez.
- Norberaren ekimenez, une bakoitzean interes eta kezka sozialei erantzun berriak ematea sustatzen duten ekintzak sortzea.
- Foro instituzionaletan edo bestelako interes-foroetan parte hartzea, hezkuntzaren esparruan jardura koherenteak eta eraginkorrak egitera daramaten irizpideetan sinergiak bultzatzeko.

Funtzio eta zeregin berriak:

Eginkizun eta zeregin berriak egiteko aukerari dagokionez, horiek proposatzeko arrazoia da Kontseiluarenarekin lotura estua duten egituretako erakundeen parte-hartzea sustatzea.

Kontseiluak askotan aztertu dituela gaiak zonako aldagaitik, eta aldagai horren arabera aldea nabarmendu du hainbat gaitan, hala nola hezkuntza-eskaintzan, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren emaitzetan, atzeritarren joan-etorrian, etab.

Horrek guztiak pentsarazten du aurreko puntuan aipatu dugun udaletako eskola-kontseiluen zeregina indartzeak Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzio berri bati lotuta egon beharko lukeela: Aholku horiek indartzea, tokiko ikastetxeen bizitzarekin zerikusia duten egoera garrantzitsu edo kezagarrietan esku hartzeko duten ahalmenagatik. Horrek, gainera, Kontseiluak errealitate horiek gehituz egiten dituen analisiak aberasten lagunduko luke.

- Udaleko eskola-kontseiluen funtzionamendu eraginkorra sustatzea.

Parte-hartzeari eta ikastetxeetako partaidetza- eta gobernantza-egituren indartzeari dagokienez hobetzeko tarte handia dagoela ikusten da.

- Ikastetxeetako eskola-kontseiluen parte-hartzea sustatzea, eta, horretarako, bere aholkularitza-eginkizuna gara dezake eta esparru horretan esperientzia esanguratsuen trukea susta dezake.

Kontseiluaren beste kezka bat ikasleen ordezkarien parte-hartze eskasarekin dago lotuta. Horrek iradokitzen du parte-hartzea eskubide eta betebeharrak gisa sustatu behar dela eskolatzearen lehen urteetatik. Humanizazioaren balioa, hezkuntzaren bidez, zeharkako gaitasunen garapena areagotuz ulertzen da, izaten, erlazionatzen, ikasten eta abar ikasteko. Testuinguru horretan, parte hartzen ikasteak lehentasunezko lekua izan behar du, entzutea eta adieraztea, aniztasunaren errespetua eta balioa, sormena eta zentzu kritikoa sustatzen dituelako, eta, azken batean, gizarte-kontzientziaz jokatzeko erantzukizuna.

- Ikasleek ikastetxean parte har dezaten sustatzea, garapen pertsonala eta soziala eta kide-tasun-sentimendua sustatuz Parte hartzea eguneroko lanaren parte izateko eronka, kide-tasun-sentimendua sustatuz.

Beharrezkoa ikusten da, halaber, hasierako prestakuntza bat Kontseilura iristen diren pertsonentzat, funtzionamenduari buruzko informazioa helaraziz, partaidetza-dinamikekin, elkar ezagutzeko errazteko eta ordezkatzeko dituzten sektoreetatik gai interesgarriak partekatzeke.

- Kontseiluan sartzen diren pertsonak prestatzea eta pertsona horiei etengabeko prestakuntza ematea, eta, hala badagokio, hezkuntza- eta gizarte-komunitateko beste ordezkari batzuei, udaletako eskola-kontseiluei,... zabaltzea.

Azkenik, eta Kontseiluaren bi urteko txostenaren ondorioei lotuta, haren hedapena arautzeko beharra ikusten da. Edukia zabala izaten da, eta, beraz, positiboa litzateke ezagutarazteko ekimenak sustatzea. Ildo horretan, funtsezkoa da egindako proposamenen jarraipena artikulatzea ere. Parte-hartzea gehien eragiten duen gaietako bat da jakitea hartutako erabakiek zer eragin izan duten eta ondorio hori sistemarentzat edo oro har hezkuntzarentzat positibotzat jotzen den.

- Funtzio hori honako hau izango litzateke: ikastetxeetako zuzendaritzekin, hezkuntza-zerbitzuekin eta unibertsitateekin informazio-kanalak ematea (hezkuntza-maila, bigarren hezkuntzako masterra), egindako ondorioak eta proposamenak hurbiltzeko eta eragin-eremu horietako bakoitzetik testuinguruaren arabera itzulera lortzeko.
- Hezkuntza Sailarekiko harremana sistematizatzea, egindako proposamenak zein egoeratan dauden jakiteko.

#### **7.4.2.- Egitura:**

Eginkizun originalak eta berriak garatzeko, Kontseiluak lanaren zorrotasuna eta kalitate-maila egokia bermatzeko moduko egitura behar du, bere kideei erraztasunak emateko.

Bi egitura-maila bereizten dira: osoko Bilkurak eratzen duena eta lanpostuen zerrendan egitura gisa eskatzen dena.

Azken horri dagokionez, eta 2015era arte zegoen teknikari-plaza desagertzean oinarrituta, hiru gogoeta egin daitezke:

Lehenengoa, Kontseiluko kideei lana erraztu behar zaiela, Kontseiluko kide guztiek beren zeregin pertsonalak dituztelako, eta esperientziak argi utzi du oso konplexua dela hutsetik abiatzea, batzordeetan hausnarketak eragiteko.



Bigarrena, abiapuntu zorrotz batek ondorengo lanaren kalitateari mesede egiten diola, eta, beraz, lanaldi osoko langileak dauden heinean datuak aztertzen eta kudeatzen, hainbat iturritatik datozen informazioetan, estatuko eta nazioarteko araudi-erreferentzietan eta abarretan, hasierako dokumentuen proposamenak erreferentzia gehiago eta, beraz, aberastasun handiagoa eskainiko du batzordeetako kideen hausnarketa sortzeko orduan.

Azkenik, eginkizun berrien proposamena gauzatzen bada, langile gehiago beharko dira eginkizun horiek garatzen laguntzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Kontseiluaren LPZk hiru lanpostu gehitzea aurreikusi beharko luke:

- Haur eta lehen hezkuntzako etapetan irakasle bat.
- Bigarren hezkuntzako irakasle bat.
- Hezkuntzaren soziologiako profila duen pertsona bat.

Hiru profil horien arteko elkarrekintzak uztartu egingo lituzke irakaskuntza-esperientziari lotutako elementuak eta gizarte-azterketaren ikuspegia, premia eta eskaera larrienetatik abiatuta.

Osoko Bilkura eratzeko, honako irizpide hauek proposatzen dira:

Organo osoari dagokionez

- Profilen aniztasuna eta, beraz, sentsibilitateak
- Egoeraren araberrako beharrei dagokienez, osaera malgua izatea.
- Udaletako edo ikastetxeetako eskola-kontseiluekiko lotura

Osatzen duten pertsoneri dagokienez:

- Ordezkatzen duen sektorearen aintzatespena, parte hartzeko foroetan izandako esperientziagatik.
- Sektoreari lotutako ezagutza
- Parte hartzeko prest egotea

Haien parte-hartzea sustatzeko, beharrezkoa izango litzateke kideei prestigioa ematea, dokumentuetan edo ekimenetan egindako ekarpenak baloratuz eta ikusaraziz. Irakasleen kasuan, merezimendu profesionalen ondorioetarako edo ikasleenaren ondorioetarako baloratu behar dira, haien gaitasunak ebaluatzeko.

#### **7.4.3.- Egiturarekin eta funtzionamenduarekin lotutako beste gai batzuk**

Aipatu dugunez, etorkizuneko hezkuntza-legean Kontseiluaren egitura xehetasunez ez zehaztea iradokitzen da, eta geroko arauketa batek eskari berrietara egokitzeko gaitasuna izan behar duen organo batek behar duen malgutasuna errazten lagunduko du.

Hala ere, eztabaida hainbat kasutan zentratzen da, eta horietatik abiatuta har daitezke Kontseiluaren osoko bilkuraren eta batzordeen egitura definitzera bideratutako erabakiak. Horien artean, honako hauek aipatzen dira:

- Parte hartzeko edo ordezkatzeko irizpidea argitzea: bata ala bestea edo biak, erabakiak hartzeko orduan maila desberdinekin.

Gehieneko erreferentzia parte-hartzea bada, orduan, ahalik eta ordezkarri gehien izango dituen Kontseilua eratu beharko litzateke. Izan ere, zenbait kolektibok urteetan zehar Kontseiluko kide

izateko interesa erakutsi dute. Badirudi parte-hartzea sustatzen duen organo batek ez lukeela baztertu behar organo horretan egotea eskatzen duen inor.

Ordezkaritzari bagagozkio, osoko bilkuraren egitura sektore gehiengodunetara mugatuta egongo litzateke, gaur egun gertatzen den bezala, administrazioaren aurrean beren proposamenak aurkeztu, bultzatu edo negoziatzeko parte-hartze eta ekintza zuzeneko baldintzei dagokienez.

Formula misto bat proposa liteke, parte-hartze handiagoa ahalbidetuko lukeena eta erabakiak hartzea mugatuko lukeena.

Kasu horretan, Kontseiluko kide guztiak izendatzeari ekingo litzaiokeen arren, lana garatzeko formula desberdinak egongo liriteke, eta horrek aukera irekia ekarriko lieke guztiei, hausnarketa, eztabaida eta proposamenak egiteko, eta beste bat, itxiagoa, ordezkariak handiena duten sektoreekin, erabakiak hartzeko.

- Adostasunaren kultura:

Kontseiluak eskaintzen duen aukeretako bat akordioak lortzea da. Eragileen aniztasunak a priori inplikatzeko aukera beraren aurrean erantzuteko aukera anitza, baina ikuspuntu horiek kontrastatzeko aukera elkar ezagutzeko eta aberasteko prozesu bat da, adimen kolektiboa helburu komun batera bideratuz, eta batzuetan ez da helburu hori lortzen, errepresentazioaren erantzukizunak hori gauzatzen duen pertsonaren iritzia bilakaerak baino pisu handiagoa duelako.

Gai hori funtsezkoa da gaitasun operatibo handiagoa duten eta proposamenen eragina eta botere publikoen eta gizarte-ordezkarien arteko elkarriketa duten beste egoera batzuek aurrera egiteko indarra kentzen duten denboran okertutako egoera batzuk gainditzeko, ordezkariak interesen aniztasuna kontuan hartuta.

- Programa berriak edo hezteko modu berriak sartzeari behar bezala erantzutea; horregatik, ahots kualifikatuak behar dira.

Aholku-Batzorde bat izateko aukera, iraunkortasunaren hainbat arlotan adituak diren pertsonekin, Kontseiluaren eztabaidetan inspirazio- eta ezagutza-iturri izango liritekeen irizpide teknikoarekin, hezkuntza pentsatzeko eta eraldatzeko funtsezko une batean egindako analitika abiatuta. Era berean, Osoko Bilkuran eskatutako gai espezifikoak buruzko eztabaida edo ponentzia jakin batzuen aurretik bilerak egin ditzakete.

- Metodologia:

Kontseiluak lau urteko plan orokor bat onartu behar du, ikastetxeetako bizitzan eragin handiena duten Sailaren ildo estrategikoak kontuan hartuta. Plan hori ikasturte bakoitzean antolatuko da, ekintza-ildo batzuk lehenetsiz, plan orokorraren arabera. Ikasturte bakoitzean helburuak eta ekimenak ezarriko dira, eta horiei lotutako ponentziak eta eztabaidak garatzeko aurreikusitako batzorde eta eragileak lehenetsiko dira.

Horrez gain, urteko memoria bat eta amaierako memoria bat egitea proposatzen da, Kontseiluaren esku-hartzea eta hezkuntza-esparruaren eraldaketan eta hobekuntzan duen eragina baloratzeko.

Beharrezkotzat jotzen da Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearekin ere harremana izatea, eta, beraz, kontuan hartu beharko litzateke ordezkari politikoaren aurrean kontuak emateko modua arautzea, erabakiak garrantzi handikoak baitira.

#### **7.4.4.- Euskadiko Eskola Kontseiluaren egitura berriaren oinarritzko proposamena**

Proposamen gisa, eta lehentasunezko hiru eremu proposatzen dira, ordezkari-kopurua zehazten ez dutenak; izan ere, esan bezala, proposamenak izaera orokorra izan beharko luke, Legearen esparruaren ondorengo arau-garapen batean zehaztu ahal izateko.

Beraz, hiru eremuak honela definitzen dira:

- 1.- Ikastetxeko barne-eragileak: ikasleen ordezkariak, irakasleak, familiak eta zuzendaritzak.
- 2.- Ezagutza aditua edo espezifikoa ematen duten agenteak: ordezkari handieneko enpresa-antolakundeak eta sindikatuak, ospe handiko pertsonak, unibertsitateak eta bestelako erakunde garrantzitsuak.
- 3.- Gobernantzaz arduratzen diren agenteak: ikastetxeen titularrak, hezkuntza- eta toki-administrazioaren ordezkariak.

Gainera, aholku-batzorde bat proposatzen da, beharrezko eragileekin, Kontseiluaren hausnarketari balio erantsia emateko, ikasturte bakoitzean proposatzen diren ekimenen arabera. Besteak beste, beste erakunde batzuetako (Aldundiak, Arartekoa, beste sail batzuk, etab.) ordezkarien esku-hartzea aurreikusten du, Kontseiluak egindako jarduera-proposamenetan ezagutza eta koherentzia handiagoa sustatzeko.

**BOTO PARTIKULAR**

Behean sinatzen dugun Euskadiko Eskola Kontseiluko hezkuntza-eragileok, Batzorde Iraunkorrek proposatutako ponentzia eztabaidatu ondoren, aurkako botoa eman eta boto partikular hau aurkeztea erabaki dugu, honako argudio hauetan oinarrituta:

- Ez da eztabaida integrala egiteko aukerarik egon, eta zuzenketak edo emendakinak aurkeztu beste aukerarik ez dugu izan.
- Bizi dugun une historikoaren garrantziak – Hezkuntza akordioak egiteko prozesu betean – eztabaida eta elkarriketa handiagoa eskatzen du, gure hezkuntzari dagozkion funtsezko arazoengatik inguruan sakontzeko, eta egoera hori ez da nahi dugun sakontasunean gertatu.
- Aurkeztutako txostenean hautemandako gabeziei dagokienez:
  - Ez da kontuan hartu Eskola Publikoa hezkuntza sistemaren ardatza izan behar dela.
  - Testuan nabaria da egun indarrean dauden egitura pribatizataileei mugak jartzeari buruzko kontraketasuna. Ez dago inolako erreferentziarik egungo itzuntzesistema gainditzeko beharri buruz.
  - Ez dago sare publikoaren eta pribatuaren arteko desorekak bideratzeko proposamenei buruzko aipamenik, bereziki Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan.
  - Ez zaio segregazioari modu integralean heltzen, hezkuntza-sistema osoari eragiten dioten egiturazko neurriekin.

Horregatik guztiagatik, BIGE, BAIKARA, DENON ESKOLA, LAB, STEILAS eta CCOOek boto partikular hau aurkeztu dugu.

Bilbon, 2021eko abenduaren 20an



## **C.- HEZKUNTZA EUSKADIN 2017-2019 TXOSTENAREN PROPOSAMENEN JARRAIPENA**

### **1. Eremua: HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA**

1.1.- Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren egoerari buruzko txostena egin dezala agintzea ISEI-IVEIri, eta, besteak beste, Europaren egiturazko adierazleetan oinarritu dadila lana egitean. Bestetik, 2016ra arte egindako ikerketekin jarrai dezala proposatzea (ikerketa horietan, familiek Haurreskolak Partzuergoak ematen duen zerbitzuari buruz duten iritzia jasotzen da).

1.2.- Familia askok seme-alabak ez eskolatzea erabakitzeke arrazoiak argituko dituen ikerketa sakona egitea, jarduteko ildoak topatze aldera.

1.3.- Hezkuntza Sailaren eta udalen, foru-aldundien eta abarren gizarte-zerbitzuen artean lankidetzaz-egiturak ezartzea, behar gehien dauzkaten familia mota horiek seme-alabak goiz eskolatzera animatzeko jarduketak sustatu eta garatzeko xedez.

1.4.- Haur eskolak doakoak izan daitezzen urratz eraginkorrak lehenbailehen ematea.

- Haurreskolak doakoak izateko urratsak Akordioaren esparruan, Lege-aurreproiektuan eta, gaur egun, 2023 ekitaldiko aurrekontu-proposamenean islatzen dira.

### **2. Eremua: EBALUAKETA**

2.1.- Errendimenduari buruzko kanpo-proben (propioen nahiz nazioartekoen) zentzuari, xedeari eta egokitasunari buruzko hausnarketa sakona eta ebaluazioa egitea, zentroak neka ez daitezzen, informazioak koherenteak izan daitezzen eta ebaluazio-sistema jasangarria izan dadin.

2.2.- Sistemaren egoera zein den jakiteko diagnostikoaren analisi sakon eta osoa egitea, berariaz errendimenduari buruzko datuetan eta kanpo-ebaluazio estandarizatuek emandako informazioetan zentratua, eskuragarri dauden datu guztiak kontrastatu eta erabiltzeko.

2.3.- ISEI-IVEIk ikastetxeetan inkesta zabal bat egitea, zentroen txostenetan kanpo-ebaluazioen ondorioz ematen diren datuak egokiak eta baliagarriak ote diren baloratze aldera, hezkuntza-komunitateei ematen zaizkien informazioak aberatsagoak eta baliagarriagoak izan daitezzen.

2.4.- Ikastetxeen artean ikerketa bat egitea, haien egoera kualitatiboa eta eskola-porroterako arriskuan dauden ikasleen tratamenduan dauzkaten premia garrantzitsuenak zein diren jakiteko xedez. Horrez gain, haien proposamenak eta esperientziak ezagutzea komeniko litzateke, kontu honetan hartuko diren erabakiak aberatsagoak eta probetxugarriagoak izan daitezzen.

2.5.- Ikastetxeak haien datu akademikoak nahiz kanpo-ebaluazioen emaitzak hobekuntza-proposamenekin lotzeko gai izateko neurriak eta prozedurak bultzatzea, zerbitzu lagungarrien eta hezkuntza-ikuskaritzaren laguntzarekin.

2.6.- Gizonezkoen eskola-uztean eta eskola-porrotean eragiten duten faktore espezifikoak aztertzea, jorratu ahal izan daitezzen. Lehentasunez aztertu beharko litzateke arazo hori, gaia hobetzeko eta hartuko diren erabakiak aztertzeko.

3.1.3.-Irakaskuntza-jardunbideak eta -estrategiak esplizituki sartzea, aztertzeke eta datuak biltzeko elementu gisa, etaparen erdiko eta amaierako diagnostiko-ebaluazioetan, informazio-corpus koherente bat eskura izateko, eta, horri esker, berme handiagoz bereizteko irakatsi eta ikasteko estrategien egokitasuna eta sendotasuna.

3.2.1.- Praktiketako funtzionarioen ebaluazio-prozesua aztertzea, gaur egun abian den protokoloaren balizko hobekuntzak identifikatzeko eta ebaluazio-programa berri bat

proposatzeko. Programa horrek berekin ekarri behar du jarraipen biziagoa egitea eta praktiketako tutoreen aldetik harreman- eta laguntza-maiztasun handiagoa eta, horretarako, figura hori egokitu beharra dago, eta berariazko laguntza, prestakuntza eta aholkularitza eman behar zaizkio.

3.3.2.- Prestakuntzak duen eraginaren ebaluazio zorrotza egitea, estrategikoentzat eta lehenetsun handienekotzat jotzen diren proposamen batzuetan behinik behin. Horrela, irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko datu eta informazio fidagarriagoak eta sendoagoak eduki ahal izango dira. Horrela sakonago aztertu ahal izango dira haren egokitasuna eta baliozkotasuna, beharretarako egokitzapena eta irakaskuntzako eta ikastetxeko praktiken gaineko eragina.

3.3.3.- Ikastetxeek prestakuntza-jardueren ebaluazioan parte hartu beharko lukete, eskola-jardueraren hobekuntzan eta ikasleengan zer-nolako eragina duten, hala badagokio, baloratuta

3.3.9.- Irakaskuntza-jarduna ebaluatzeko ereduak proposatzea eta ikasleen ikaskuntzarekin horiek duten lotura ikertzea.

3.3.10.- Diagnostiko-ebaluazioetan, arian-arian, irakaskuntza-jardunari buruzko galdetegiak sartzea, ikasleen emaitzei buruzko azalpenen maila handitzeko eta hobekuntza-arloak identifikatzeko irakaskuntza-funtziorako sarbidean, irakasleen etengabeko prestakuntzan eta horien maila-igoeran...

- Kanpoko ebaluazioaren praktikak ikastetxeek erakutsitako nekea Akordioaren esparruan jasotzen da. Bertan jasotzen da *“ikasleen kanpo-ebaluazioak arrazionalizatzeko ahalegina egin behar dela... Beharrezkoa da horien maiztasuna argitzea eta erregularizatzea... ikastetxeek ebaluazio horiek modu normalizatuan integratu ahal izan ditzaten.”*
- Euskal Hezkuntza Sistemaren diagnostikoa ISEI-IVEIk egiten dituen txostenen bidez egiten da, kanpo-ebaluazioen emaitzekin edo Ikuskaritzak ikasturte bakoitzean emaitza akademikoekin egindako azterketekin. Gainera, Sailak berak argitaratu zuen sistemaren diagnostiko bat 2019an, 2017-18 ikasturteari buruzkoa, eta 2021ean, ISEI-IVEIrekin lankidetzan, 2020-21 ikasturteari buruzkoa.
- ISEI-IVEIk inkesta zabal bat egiten du ikastetxeen artean, ikastetxeko txostenetan emandako datuen egokitasuna eta erabilgarritasuna baloratzeko, hezkuntza-komunitateei emandako informazioak aberastu eta onuragarriagoak izan daitezen.
- Ikuskaritzak emaitza akademikoen urteko txostenak ditu. Txosten horiek ikasturtearen hasieran aztertu ohi ditu ikastetxeetako zuzendaritza-taldearekin, eskola-porrota jasateko arriskuan dauden ikasleen tratamenduan dituzten premia garrantzitsuenak finkatzeko.  
Proposamenak eta esperientziak ezagutzeari eta trukatzeari dagokionez, hainbat formatutan egiten da, jardunaldien, mintegien eta abarren bidez.
- Bai laguntza-zerbitzuek, bai Ikuskaritzak berak, eskola-uzte goiztiarra eta porrotean eragina duten faktoreen azterketan eta jarraipenean esku hartzen dute, horiei aurre egin ahal izateko. Datu akademikoek emaitzak islatzen dituzte, generoaren aldagaia kontuan hartuta.
- Ikuskaritzak esku hartzen du neurriak eta prozedurak sustatuz, ikastetxeak gai izan daitezen beren datu akademikoak eta kanpo-ebaluazioetako emaitzak hobekuntza-proposamenekin lotzeko, laguntza-zerbitzuen laguntzarekin.

- ISEI-IVEIk urratsak eman ditu irakaskuntza-praktikak eta estrategiak aztertzeko etaparen erdiko eta amaierako diagnostiko-ebaluazioetan, irakaskuntza-ikaskuntza estrategia desberdinen egokitasuna eta sendotasuna berme handiagoz bereizteko aukera emango duen informazioa izateko.
- Ikuskaritzak praktiketako funtzionarioen ebaluazio-prozesua aztertzen du, gaur egun funtzionatzen ari den protokoloaren balizko hobekuntzak identifikatzeko. Ebaluazio honetan, azken urteotan, garrantzi berezia hartu du erreferentziazko ikuskariek praktiketako funtzionarioen ehuneko handi bati egiten dioten gelako bisitak.
- Sailak prestakuntzaren eragina ebaluatzen du, gutxienez estrategikoagotzat eta lehenetasunez kotzat jotzen diren proposamen batzuetan, irakaskuntzako eta ikastetxeko praktiketako beharretara eta eraginera egokitzeko datuak eduki ahal izateko.
- Prest Gara ikastaroetatik, hainbat deialditan, prestakuntza-jardueren ebaluazioan parte hartzeko eskatzen zaie ikastetxeei, eskola-jardueraren hobekuntzan eta ikasleengan duten eraginean eraginik duten baloratu.

### 3. Eremua: ABANDONU GOIZTIARRA

3.1.- Eskola-uzteari buruzko azterlan sakona egitea, eta ez genero-arrakalari dagokionez bakarrik (oinarrizko datuak baino ez dauzkagu), baita eskola uzten dutenen jatorriari, lorturiko gehieneko prestakuntza-mailari, lan- eta enplegarritasun-egoerari, ezaugarri sozial eta familiarrei, jarraitutako ibilbide akademikoari edo, beste aldagai batzuen artean, intzidentzia handiagoa daukaten lurralde-nukleoari eta eremuei dagokienez ere.

3.2.- Eskoletako erregistroen datuak erabili ahal izateko neurriak sustatzea, ikasle mota horiei buruzko luzetarako ikerketak egiteko.

- Ikuskaritzak eta Berritzeguneei aniztasunari eta zailtasunak dituzten ikasleei arreta emateko programa eta neurri batzuen jarraipena egiten dute; adibidez, Eskolatze Osagarriko Programa, Eraldatzen eta hezkuntza indartzeko baliabideak.

### 4. Eremua: BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZA

4.1.- 1/2013 Legeak finkatu dituen eta ikaskuntza etengabearen eremuarekin zerikusia daukaten baliabide, programa eta proposamen guztiak modu koherente eta osoan hedatzeko xedez oinarritzotzat jotzen diren eta oraindik garatu ez diren oinarritzko alderdiak abiatzen laguntzea; zehazki, Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzarako Euskal Kontseilua sortzea (hainbat urteko planak koordinatzeko eta sustatzeko erakundea izan dadin), Euskadiko ikaskuntza etengabearen egoerari buruzko diagnostiko orokorra egitea eta Europaren adierazle hau hobetzen eta betetzen lagunduko duten xedek eta programak finkatzea, Euskadi oraindik ez baita adierazlea betetzera iritsi.

- Ez da kontuan hartu

### 5. Eremua: HEZKUNTZA-SISTEMAREN ETORKIZUNA

2.1.1.- Gure sistemaren etorkizunari buruzko eztabaidan eta gogoetan, arreta jarri behar da ikasle guztien ikaskuntzan arrakasta lortzean, betiere gizarte-kohesioa bermatuta.

- Hezkuntzari buruzko Lege berriaren aurreproiektua aurkeztu da, eta Eusko Legebiltzarrak gidatutako eztabaida eta hausnarketa-fasea eta Eusko Jaurlaritzak gidatutako herri-konsulta barne hartu ditu.

## 6. Eremua: EUSKERA

2.1.2.- Horrek guztiak agerian uzten du Euskararen Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legean jasotako aurreikuspena —derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak amaitzean ikasleei bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktiko nahikoa izateko benetako aukera baldintza berdinetan bermatzekoa (17. artikulua)

- Ez da egin, baina Lege Aurreproiektuaren zenbait artikulutan ideia hori azpimarratzen da.

2.1.3.- honako gai hauek jorratu beharko lirateke, besteak beste aldeak euskararen hizkuntza-tratamenduan eta ikaskuntzaren emaitzak eredu bakoitzaren barruko errealitatean.

Hizkuntzaren, gizarte eta ekonomiaren eta kulturaren testuinguru bereizgarriek ikasleen ikaskuntza-eritmoetan eta -emaitzetan duten eragina, bai euskarari dagokionez, bai hizkuntza horretako gainerako curriculumaren ikaskuntzei dagokienez.

Estratuen analisiak erakusten ditu horietako bakoitzean biltzen diren ikasleen desberdintasun sozioekonomikoak eta linguistikoak. Beharrezkoa litzateke ikastetxeen osaerari buruzko azterketa bat egitea, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzeko behar diren neurriak hartzeko.

Legearen aurreproiektuan 69 artikuluan adierazten da: Euskal Hezkuntza-sistemako Hizkuntza-proiektuei buruzkoa, ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen eta irakasleen profilak kontuan hartu beharko direla adierazten du.

2.1.4.- Ikastetxeen hizkuntza-proposamenei erantzun egokia emateko irakasleak zer neurritaraino trebatuta dauden aztertu beharko litzateke (irakasleak euskararen erabilera arinean trebatzea, baita metodologia didaktiko espezifikoean ere).

- Hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza proposatzen da 72. artikuluan eta 91 Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutua sortzea.

## 7. Eremua: IRAKASKUNTZA ETA ZUZENDARITZA

3.1.1.- Irakaskuntza-jardueraren azterketa egitea: estrategia eta jardunbide nagusiak, irakasle-ikasle harremanen ezaugarriak, metodologiak, talde-lana...

3.1.2.- Irakasleen irakaskuntza-ekintzak ikasleen emaitzetan duen eragina eta eskolak haien bizikalitatean duen eragina aztertzea.

3.3.1.- - Balorazio positiboa duten hasitako programekin jarraitzea eta ikastetxeak parte hartzera animatzen segitzea.

3.3.4.- Aztertzea irakasleek zein irizpide erabiltzen dituzten mintegien eskaintzaren eta berritzeguneen aholkularitzaren barruan parte hartu nahi duten prestakuntza-jarduerak hautatzeko. Helburua da prestakuntza-eskaintza eta -proposamenak egokitzea irakasleen behar eta kezketara eta ikastetxeek planteatutako premietara.

3.3.5.- Irakasleen lagin zabal bati inkesta bat egitea, honako hauek jasotzeko: beharrezkoagotzat jotzen dituzten benetako prestakuntza-premiak, beharrezkoagotzat jotzen dituzten prestakuntza-estrategiak eta hezkuntza-aldaketa sustatzeko prestakuntza-prozesuaren ezaugarriak.



3.3.7.- Irakaslearen figura babestea, sozialki bere lana eta behar den hezkuntza-aldaketan duen funtsezko eginkizuna duinduko duten kanpainen bidez. Horietan, zeregin horretan familien eta gizartearen lankidetzak eskatu behar da. Halaber, bere lana aintzatesteko ekintzak bultzatu behar dira, hezkuntza-sarien bidez, irakasle berriei harrera eginez eta lagunduz, erretiratzen diren irakasleei agur publikoa eginez edo irakasleen kolektiboaren ongizatea lortzen lagunduko duten bestelako proposamenen bidez.

4.1.1.- Zuzendaritza-taldeek prestakuntza-programa indartzen, berriro zehazten eta eguneratzen jarraitzea, ebidentzia eta esperientzia egiaztatuetan oinarritutako prestakuntza-estrategia eta -ikuspegi berriak txertatuz, prozesu horretan inplikaturako pertsonen jarraipena zabalduz eta lankidetzak eta truke-sareak sor daitezela sustatuz. Horretarako, beharrezkoa da programan parte hartzen dutenen iritziak, balorazioak eta iradokizunak kontuan hartzea.

4.1.2.- Ikastetxe publikoek zuzendaritza egonkorak eta zuzendaritza-proiektudunak izan ditzaten lagunduko duten prozesu guztiak abian jartzea, besteak beste, irakasleak kudeaketa- eta lidergo-prozesuan presta daitezela bultzatuz eta animatuz, ikastetxean zuzendaritza-kompetentziak eta hezkuntza-lidergoa izango dituzten profesional guztiak identifikatuz, etab.

4.1.3.- Zuzendaritza-eginkizunen irudia hobetzea, zuzendaritza-taldeetan lidergoa bultzatzea, egonkortasuna sustatzea eta prestakuntza areagotzea ikastetxeen eta pertsona taldeen kudeaketarekin eta antolamenduarekin lotutako alderdietan.

4.1.4.- Kontuan hartzea ikasleen irteera-profila eta irakasleen kompetentzia-profila prestakuntza-jarduerak diseinatzeko eta antolatzeko, bai irakasleentzat, bai zuzendaritza-taldeentzat, prestakuntzak eragina izan dezan ikasgeletan eta ikastetxeetan.

4.1.5.- Ikastetxe publikoetako zuzendaritzak hobetzea, zuzendaritza-eginkizunaren esparru berri batekin. Esparru horrek argi eta garbi zehaztu behar ditu zuzendaritzen eginkizunak, eskumenak eta erantzukizunak, karguan sartzeko behar duten prestakuntza, beren zeregina egiteko baliabideak eta pizgarriak ere (ekonomikoak eta irakasle-karrerakoak).

4.1.6.- Zuzendariak Hezkuntza Sailaren osagai estrategikotzat hartzea eta, hortaz, Administrazioak abian jarri nahi dituen funtsezko neurri, programa eta proposamenetan kontsultatuak izateko duten eskubidea aintzatestea.

4.1.7.- Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeek arteko lankidetzak bultzatzea, esperientziak partekatzeko, elkarrekin gogoeta egiteko eta hezkuntza-kudeaketaren hainbat arlotan proposamenak egiteko topaketa-esparruekin.

- Balorazio positiboa duten hasitako programen jarraipena Bizikasin, STEAM proiektuetan, hizkuntzen tratamendu integraturako Eleaniztasunerantz proiektuetan, Ulibarri esparruan eta Bikaintasunerantz esparruaren barruko Prestakuntzarako edo Berrikuntzarako ikastetxeko deialdietan islatzen da funtsean.
- Zonako Berritzeguneei eta Berritzegune Nagusiak inkestak egiten dizkiete irakasleei, beren prestakuntza-eskaintza egokitzeko, ikasleen irteera-profila eta irakasleen gaitasun-profila kontuan hartuta.
- Irakaslearen aitortzea Hezkuntza Lege berriaren aurreproiektuan jasota dago.
- Hezkuntza Saila irakaskuntzaren gaitasunen esparrua definituko duen esparru bat lantzen ari da.

- Zuzendaritza-taldeen prestakuntza zuzendaritza-funtzioaren garapenari buruzko prestakuntza-ikastaroak eta gaitasunak eguneratzeko ikastaroak arautzen dituen Ebazpenak aldatu du.
- Ikuskaritzak ikastetxeetan esku hartzen du zuzendaritza egonkorak eta zuzendaritza-proiektuarekin sortzen laguntzeko, besteak beste, zuzendaritzaren irudia hobetuz, irakasleak animatuz kudeaketa eta lidergo-prozesuan treba daitezen, ikastetxean zuzendaritza-gaitasunak eta hezkuntza-lidergoa erakusten dituzten profesional guztiak identifikatuz, eta abar.
- Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-dekretu berriak zuzendaritza-funtzioaren esparru berri bat proposatzen du. Hala ere, beharrezkoa da ondoren araudi bat ezartzea, honako hauek argi eta garbi zehazteko: eginkizunak, eskumenak eta erantzukizunak, karguan sartzeko behar den prestakuntza, zeregina garatzeko bitartekoak, eta pizgarriak (ekonomikoak eta irakaskuntza-karreran).
- Dekretu berrian, zuzendariak Hezkuntza Sailaren osagai estrategiko gisa aitortzen dira, eta Administrazioak abian jarri nahi dituen funtsezko neurri, programa eta proposamenetan kontsultatuak izateko eskubidea dute, eta zuzendaritza-taldean arteko lankidetzaren sustatzen da.

## 8. Eremua: SARBIDEA ETA EGONKORTASUNA

3.2.2.-Hasieran, modu esperimentalean, irakaskuntzara bultzatzeko programa bat abian jartzeko aukera aztertzea, hiru arlo hauek kontuan hartuta: tutoretza- edo aholkularitza-sistema bat, bere eginkizunak aitortuta eta baldintza eta konpromiso espezifikoak finkatuta; bilerak eta lan programatua zuzendaritza-taldearekin eta beste kide batzuekin; autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak eta tresnak; eta prestakuntza-programa espezifiko bat, taldeko irakaskuntza eta sozializazio-sareak eta parekoen arteko berrikuspenera ekarriko dituzten jarduerekin.

- Ez da kontuan hartu

3.2.3.-Bitarteko langile gisa irakaskuntzan hasten den pertsonalarekin zer ekintza eta proposamen egin daitezkeen aztertzea, betetzen duen lanbide-jardunean hobeto integratzeko eta irakaskuntzako lanbide-ikaskuntzako prozesu honetan laguntzeko helburuarekin.

- Ez da kontuan hartu

3.3.6.- Plantillen egonkortasuna sustatzen jarraitzea, baita ikastetxeen autonomia zabaltzeko eta indartzeko ahaleginak egitea ere, beren hezkuntza- eta curriculum-proiektua garatzeko beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituzten lanbide-profilak pixkanaka ezarri ahal izateko.

- Funtzio publikoan plantillak egonkortzeko nazioarteko konpromisoen ondorioz hartutako neurriek eragina izaten ari dira LEPen antolaketan.

3.3.8.- Berritzeguneen egungo egoera sakon aztertzea.

- Laguntza-zerbitzuak berrikusteko eta egokitzeko prozesuan daude, eta aurreproiektuan jasota daude haien ezaugarri orokorrak, oinarritzko funtzioak eta aplikazio-eremua.